

# puntuua

## KOMUNIKAZIO PAREKIDERANTZ KAZETARIENTZAKO ESKULIBURUA



ONLA

emakume  
txokoa

ELKARRIZKETA

### ARANTZA SANTESTEBAN

KOMUNIKAZIO PAREKIDEAREN  
GAINKO ESTILO LIBURUA AURKEZTU  
DU ARRASATEKO EMAKUME  
TXOKOAREKIN ETA GOIENA  
TALDEAREKIN ELKARLANEAN



# PUNTUA | 041

AZALEKO ARGAZKIAREN EGILEA:  
**JAGOBA DOMINGO**

<p><b>3 Nire txanda</b> <i>Jirafa sutan</i></p> <p><b>4 Bat-batean</b> Estibaliz Ruiz de Azua</p> <p><b>6 Irudiz</b> Txatarra parkea, kiroldegi</p> <p><b>8 Mundutik</b> Kubako cuentapropistak</p> <p><b>10 Erreportajea</b> Euskarak badu pisua ekonomian</p> <p><b>16 Iritzia</b> Gora zuek! Joango zara aurtengo Durangoko Azokara?</p>	<p>Joxe ta Piku Tirania, politikagintza edo biak</p> <p><b>18 Talaiatik</b> 5.000 baietz!</p> <p><b>20 Elkarrizketa</b> Arantza Santesteban, komunikazioan aditua</p> <p><b>24 BIZI</b></p> <p><b>24 Osasuna</b> Zer da artrosia? Eta zer artritisa?</p> <p><b>26 Kirola</b> Mantentze-lan onena, bizikleta garbi izatea</p>	<p><b>28 Adituen esanetan</b> Pentsatu oparitu aurretik</p> <p><b>30 Otorduan</b> Arrasateko Larrinetxe jatetxea</p> <p><b>32 Moda</b> Itziar Martinez diseinatzailea</p> <p><b>34 Motorra</b> Airean aske</p> <p><b>36 Gure artistak</b> Miguel Vela</p> <p><b>38 Kultura</b> Anari Alberdiri musikaria</p>	<p><b>40 Liburu artean</b> <i>El bar de las grandes esperanzas</i></p> <p><b>41 Goienakideak</b></p> <p><b>42 Gure altxorrak</b> Bergarako Irizar jauregia</p> <p><b>44 Komunikazioa</b> Irudietara eraman</p> <p><b>45 Gadgetmania</b></p> <p><b>46 Handitzen, handitzen</b></p> <p><b>46 Jolasak</b> Nor da?</p> <p><b>47 Jaioberriak</b></p>		

## puntua

**Argitaratzailea** Goiena Komunikazio Taldea Kooperatiba Elkartea  
Otalora Lizenziaduna 31  
20500 ARRASATE  
**Lehendakaria** Aitor Izagirre  
**Zuzendari nagusia** Iban Arantxabal  
**Zuzendaria** Eneko Azkarate

**Eredaktore burua** Monika Belastegi  
**Diseinu arduraduna** Iñaki Iturbe  
**Euskararen arduraduna** Sergio Azkarate  
**Publikitate arduraduna** Mireia Larrañaga  
**Kluba eta banaketa** Marta Leturia

**Maketazioa** Iñaki Iturbe, Kepa Martelo  
**Publikitatea** Mireia Larrañaga, Amaia Mundiñano, Ziertra Martin, Imanol Elortza  
**Administrazioa** Agurtzane Gaintzarain, Ane Berebizbar, Iratxe Bengoa

**EGOITZA NAGUSIA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizenziaduna 31  
132 posta-kutxa  
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00  
berriak@goiena.eus

**PUBLIKITATEA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizenziaduna 31  
943-25 05 05 | Faxa: 943-25 05 00  
publi@goiena.eus

**HARPIDETZA**  
Arrasate 20500  
Otalora Lizenziaduna 31  
Tel.: 943-25 05 05  
harpidetza@goiena.eus  
**Lege Gordailua:** SS-1509-2014  
**ISSN:** 2443-9738  
**Tirada:** 4.100 ale

goiena | TOKIKOM



## EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA  
ETA KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

**Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak  
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundutako aldizkaria**



**Gipuzkoako Foru Aldundia**





Nestor Arana

## ‘Jirafa sutan’

### Kontsumo gizarte honek baliabide naturalen agortzea dakar

Agian ezagutuko duzue Salvador Dalik 1936an marraztu zuen *Jirafa sutan* artelana. Ezagutzen ez baduzue, Interneten bilatu eta ikusi dezazuen animatzen zaituztet.

Kontsumo gizarteak ekarri zitzakeen ondorioek ez zuten arduratzen garai hartan; ongi asko iragarri zuen zer gertatu zitekeen.

Koadroan jirafa bat sutan ageri da. Sutan dagoen arren, geldi dago, ez du ezer egiten, duen arazoa ekiditeko. Horrek, noski, heriotza ekarriko dio.

Murgilduta gauden kontsumo gizarte honek gure baliabide naturalen agortzea eta munduaren berotzea dakarrela

jada ezaguna da.

Tamalez, jirafaren antzera, ez dugu ezer egiten.

Horretaz gain, jirafa hirugarren plano batean agertzen da, (dugun arazoak) garrantzirik edukiko ez balu bezala. Baina lehen planoan kontsumoak hil duen pertsona bat agertzen da.

Gure bailaran eztabaidatzen ari garen zaborren jasotzean bi planteamendu agertzen direla esango nuke: batetik, kontsumoa eta gizakiaren itxura bateko *libertatea* dugun suaren aurretik defendatzen duena; eta bestetik, naturaren eta gizartearen arteko oreka mantentzeko jarrera irmo eta arduratsuagoa eskatzen duena.

Koadroa ikusi eta hausnartzera animatzen zaitut. ■

# Estibaliz Ruiz de Azua

Kazetari arabarrak irratian hasi zuen ibilbidea; lehen aldiz 2001ean jarri zen kamera aurrean eta 2009a ezkerro asteburuetako 'Teleberri' aurkezten du.

TESTUA: TXOMIN MADINA ARGAZKIA: EITB

**Aurkeztu zenuen lehen informatiboa 2001eko irailaren 11koa izateak markatu egiten du?** Egia esan, bigarrena zen, baina bai, markatzen du. Irratitik ezagutzen ez nuen hedabide batera heldu nintzen, eta telebistan komunikatzeko modua ezberdina da, irratian behar ez diren beste errekurtsu batzuk erabili behar dira. Markatzen du, baita ere, informatiboki ate berri bat zabaldu zelako.

**Zein da albistegietako aurkezle baten eginbeharra?** Beti diot aurkezle baten eginbeharra albistegi bat defendatzea dela; besteen lana balioan jartzea, erredakzioan egindako lan guztia ikusaraztea eta jendeak antzematea.

**Noiz izan zen informatibo bat albiste positibo batekin zabaldu zenuen azken aldia?** Informatiboek ez dute albiste positiborik! [Barre] Egun batzuk barru pentsatzen dut loteria nork irabazi duen kontatuaz hasiko dugula informatiboa. Baina albiste izaten dira egunerokotik irteten direnak, harritzen gaituztenak edo barruak nahasten dizkigutenak; eta horiek, orokorrean, ez dira albiste onak izaten.

**Zein albiste ematea gustatuko litzazuke?** Ez dakit... Zoriontasuna zer den edo non dagoen esatea bezala da. Ez da egongo albisterik munduan bakea dagoela edo emakumeen kontrako indarkeria amaitu dela esango duenik, baina gustatuko litzaidake egunero dauden albiste txiki baina on horiek azpimarratzea.

**Berdin epaitzen dira gizonetako zein emakumetako aurkezleak?** Ez dut uste. Akaso, gauzak aldatzen doaz, baina... Telebistan irudiak asko agintzen du. Jendartearen, orokorrean, irudi aldetik gehiago eskatzen zaio emakumeari gizonari baino, eta hori telebistan ere islatzen da: komunikatzen jakitea da garrantzitsua, baina irudia ere aintzat hartzen da; zenbait katetan, behar baino gehiago, batez ere, emakumeekin.

**Sarri esaten da: "Telebista publiko guztiak manipulaturik daude". Defenda zaituzte.** Ez da guztiz egia, baieztapen kategoriko guztiak bezala. Publikoa izanda, alor batzuetan, akaso, beste telebista batzuek baino arreta handiagoa jartzen dugu. Baina ez dut uste publikoak izateagatik politika ez den beste interes batzuen –esaterako, ekonomikoen– arabera mugitzen diren telebistak baino gehiago edo gutxiago manipulaturik gaudenik.

**Esan asteburuetan lan egitearen hiru abantaila.** Aspergarriak izan daitezkeen igande arratsaldeak ekidin eta ez duzula astelehena datorrelako beherakadarik; ez duzula joan beharrik gura ez duzun familia bazkarietara... Askoz gehiagorik ez. Gauza bat da tarteka lan egitea eta beste bat, astebururo. Baina ez da kexa bat, hausnarketa bat baizik.

**Ez duzu ezkutatu minbizia izan duzunik.** Ez dut uste ezkutatu behar denik. Urtebetez informatiboetatik desagertu nintzen, eta lau haizetara minbizia nuenik ez esan arren, galdetu zidanari ez nion gorde. Garrantzitsua iruditzen zait ohikoak diren gauzak, bizitzaren gauzak, normalizatzea; gauza bakoitzari bere izenez deitzea. Eta ikusi dudana, uste dut garrantzitsua dela minbizia izan duten eta tratamendua jaso duten hainbatentzat pertsona neurri baten ezagun batengan islatuta ikustea euren burua; ez dezatela sentitu arraroak direnik.

**Zer moduz zaude orain?** Osasun aldetik, oraingoan, ondo, eta espero dut horrela segitzea. Lanean ere ondo eta bizitza pertsonalean ere ezin naiz kexatu. Beraz, ondo. ■







## Txatarra parkea, kiroldegi

**ARGAZKIA: AMOSARRAIN FAMILIA**

**TESTUA: ENEKO AZKARATE**

Bergarako Labegaraietako kiroldegia eredugarri jarri izan da, erabilpen industrialekoa zen eraikin bat kirola egiteko eraikin bihurtzeko egindako eraldatze prozesua dela eta. Ramon Garitano arkitekto bergararraren proiektua aintzat hartuta eraiki eta 1986an inauguratu zuten, Imanol Bolinaga alkate zela. Kiroldegia izan aurretik Bergarako Zerrajerako txatarra parkea izan zen, 1970eko hamarkadan ateratako Amasorrain familiaren argazkian ikusten denez. 1980ko industria eraldaketa basatiaren alde on bakarrenetakoa da gaur egungo kiroldegia.





# Kubako cuentapropistak

MUNDUTIK



**Unax Zabala**

Mundukide Fundazioren  
Kubako koordinatzailea

Azken hilabeteetan Kubak gertaera garrantzitsuak bizi izan ditu, eta, hauen artean, komunikabideek asko komentatu dituzten bi azpimarratuko nituzke: Kubaren eta Ameriketako Estatu Batuen arteko erlazioen normalizazioa eta Francisco aita santuaren bisita; baina oraingoan, bi orrialdek ematen dutenari lotu behar naizenez, eredu ekonomikoaren aldaketa azpimarratu nahi nuke. Kuban gertatzen ari den eguneraketa bezala definituaz eta mediatikoki indar txikiagoa duen arren, oinezko kubatarrentzat oso gertakari inportantea.

Kubak, hazkuntza geldoko testuinguru baten aurrean eta nazioarteko krisialdi ekonomikoak erasoturik, 2010ean aktualizazio politika dokumentu bat onartu zuen, epe erdi eta luzerako helburuak markatzen zituen.

**Eraldaketa** estrukturalen prozesu batekin eman zitzaion hasiera, besteak beste, honako esparru hauek aurreikusiz: bat, Langile Cuentapropistei bultzada; bi, kooperatiben, zerbitzuen eta industria txikien esparruan hedatze lana.

Eguneratze prozesua oso dinamikoa izaten ari da eta egunerokoan aldaketak ikusi egiten dira, forma pribatuko

enpresen irekiera erabat nabarmenduz.

Nekazaritza, alojamendu eta ostalaritza alorrera mugatzen zen aurreko ekimen pribatua Kubako kaleetara zabaldu da denda txiki, jatetxe eta zerbitzu itxurarekin.

Hedapena 201 ekintza zehatzetara mugatu izanak eta etxe partikularrak ezin direnez erabili hauen garapenerako, nabarmen







◀ Unax Zabalak bi urte daramatza Kuban Mundukide han bultzatzen ari den formazio kooperatiboari buruzko programarekin.

◻ Irudian agertzen den emakumea bezala, cuentapropistaren figura asko hedatu da; bereziki, hirietan.

aldatu da herrien eta hiriburuen itxura, milaka negozio berriren irekierarekin. Eta garrantzitsuena da lanerako gune berri bat zabaldu dela edozein pertsonak diru sarrera berrieekin dituen beharrak ase ditzan.

**Cuentapropisten** –euren kontura negozioa daukaten pertsonak– hedapena, Habana bezalako hirietan,

turismoarekin erlazionatutako ostalaritza edo garraio alorrean oso nabarmena izan da negozioaren kopuruari eta konplexutasunari begira, batik bat.

Eredu cuentapropistak izandako bilakaera dela eta –kasu askotan, autonomoarekin pareka daiteke–, autonomoarena gainditzen du sarri, ezein euskal enpresa txiki edo

ertainerako bilakaera izateraino.

Kubako ekosistema cuentapropistaren barruan, pertsona batek, familiaren laguntzarekin, etxeko patioan duen kafetegi bat ikus dezakegu, eta baita kontratupeko 40 langile dituen garraio edo ostalaritza enpresa bat ere.

Jatetxeen kasuan, bestalde, etxe handiak erosten edo alokatzen dituzte hiriko leku neurgialgoetan, eta egokitzen diru kopuru esanguratsuak inbertitzen dituzte, Kubako batez besteko soldatekin konparatuta.

Cuentapropista txikiek, berriz, inbertsio txikiagoak behar dituzte: familiaren etxea eta euren aurrezkiak dira inbertsioaren oinarria.

Anbizio handiko edo negozio konplexuagoak dituzten cuentapropisten kasuan, kapital handiagoak erabiltzen dituzte; dena den, diruaren jatorrizko herrialdean inbertitzea baino merkeagoa da. Inbertsio handiek Kubatik kanpoko diru sarrera izaten dute: atzerrian egindako lanen ordainetan edo atzerriko monetan kobratuta; baita atzeritik sendikoez egindako diru bidalketak kubatar biztanleen bitartez inbertituz –sarri, Kuban bizi diren kubatarrekin ezkonduetako atzerritarrak–. ◻



ARGAZKIAK: UNAX ZABALA

# Euskarak badu pisua ekonomian

Euskararen balio eta eragin ekonomikoa eta sortzen duen aberastasuna, EAEn, ia turismoak sortzen duen beste da, %4,2ko BPGrekin eta 56.142 lanpostu zuzenekin.

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: JOSU BILBAO ETA OLATZ OSA

**E**uskarak duen balio eta eragin ekonomikoa neurtzeko azterlana egin du Siadeco Ikerketa Elkartek Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailarentzat. Ikerketa horrekin, EAeko ekonomiari euskarak egiten dio ekarpena ezagutu, euskarak sortzen duen aberastasun ekonomikoa neurtu eta euskara-sektoreen dimentsio eta balio ekonomikoa kuantifikatu nahi izan dute.

Azterlanak erakusten du euskara euskal ekonomiaren jarduera-sektore bat gehiago dela. Herri-administrazioetatik bideratutako jarduera publikoaz gain, euskarak badu merkatu gero eta zabalagoa; euskararen industria bat dago, eta euskararekin lotura estua duten merkatu pribatuko jarduera horiek euskal ekonomian enplegua sortzen duten jarduera-sektoreak dira.


**EUSKAL EKONOMIAREN %4,2** EAeko barne produktu gordinaren %4,19 da euskara, 2.800 milioi euro inguru, egindako ikerketaren arabera. Ia-ia turismoa (%5,8) edo

hezkuntza (%5,5) beste, eta I+G+b (%2,1) baino dezente gehiago.

Elkar Argitaletxeko arduradun Olatz Osak azaldu du orain arte euskara azpikategoria bat bezala hartu izan dela: “Azken urte luzeetan instituzioen aldetik turismoa eta hirugarren sektorea bultzatzeko interes eta erabaki argia egon da, estrategikotzat jo da eta baliabideak eta bozgorailuak jarri dira hori sustatu eta bultzatzeko. Euskararekin eta euskal kulturarekin ez dut horrelako determinaziorik ikusi. Euskara eta kultura azpikategoria bezala hartua izan da, estrategia handietatik kanpo. Zaila da posizio horretatik oihartzun handia lortzea. Interesgarria da azterketak ematen digun datua, gure neurria eta egiten dugun ekarpenaren irakurketa osatzeko balio duelako”.

Balio erantsi gordina ere kalkulatu dute ikerketan, eta EAeko ekonomiaren BEGrekiko %4,52 da euskara; denetara, 2.751 milioi euro. Horietatik 1.867 milioi euro zuzenean sortzen ditu, 232 milioi zeharka eta 650 milioi induzituta.

“Askotan pentsatzen da alboan dagoen gauza bat dela, bigarren mailakoa edo. Erakustea ekonomiaren portzenta-



**EAE-REKIKO BARNE PRODUKTU GORDINA**

**%4,19**



## “ORAINDIK EZ DAKIGU NON DAGOEN EDO NOIZ JOKO DUEN SABAIA”

JOSE FELIX DIAZ DE TUESTA  
ARRASATEKO UDALEKO EUSKARA TEKNIKARIA



jeetan noraino iristen den, zer balio duen, zenbat lanpostu dauden, zenbat diru mugitzen den, zenbat diru mugiarazten duen, zer ekonomia mugiarazten duen... Garrantzitsua da hori erakustea, horrek prestigioa eta garrantzia ematen diolako. Gainera, euskara bera gure kulturaren eta gure izaeraren zati garrantzitsuenetako bat da, eta horretan dirua inbertitzea ezinbestekoa da. Gas-tuak hor daude, baina hortik bueltan ere badator, eta horri garrantzia eman behar zaiola pentsatzen dut”, azaldu du Oskar Elizburuk, Arrasateko AEK-ko arduradunak.

“Telebista ikusita edo komunikabideetako albisteak entzunda, ematen du, eta hala da, turismoak pisu handia duela. Hainbeste turista ikusita, gainera, sektore honek aberastasun asko sortzen duela pentsa dezakegu. Baina guk ez dugu ikusten egunero zenbat jende joaten den euskaltegietara. Horiek ez daude identifikatuta, ez dago horientzako txip bat. Baina zenbat jende dago matrikulatuta euskaltegietan? Zenbat doaz hezkuntza eredu konkretu batzuetara? Komunikabideetan ere zenbat jende doa egunero lanera? Horrek kristoren indarra du, eta, agian, ez gara konturatzten, orain arte ez delako kuantifikatu eta ez

delako jendaurrean jarri, ikerketa honekin egin duten bezala”, azpimarratu du Jose Felix Diaz de Tuestak, Arrasateko Udaleko Euskara teknikariak.

“Zenbat eta gehiago funtzionatu euskaraz, orduan eta balio handiagoa sortuko du gure hizkuntzak. Euskara ez dabil dirua galtzen duten sektoreen artean. Sektore normaletan sartuta dagoen beste bat da, eta edozein herrik dituen azpi-sektoreak ditu. Ona da horrelako ikerketak kaleratzea, balio digulako zenbakitan jartzeko euskarak zer balio daukan. Euskarari beti leporatu izan zaio dirua kostatzea, diru laguntzak eskatzea. Beti ematen du txarra dela euskararen alde dirua eskatzea, eta honek erakusten du ematen den dirua gero gizarteari zentzu askotan itzultzen zaiola. Orduan, euskarari dirua ematea gure gizartearentzat inbertsio bat da”, dio Eneko Bidegainek, Mondragon Unibertsitateko Huhezi fakultateko irakasleak.

**ENPLEGUAN ERE PISUA** Euskal Autonomia Erkidegoko enpleguaren ia %6,3 euskararen sektoreari dagokio: 56.142 lanpostu, guztira, hain zuzen ere. Horietatik 42.724 zuzenekoak, 3.748 zeharkakoak eta 9.670 induzituak dira.

EUSKARAREN SEKTOREARI DAGOKION ENPLEGUA



HEZKUNTZA ETA UNIBERTSITATE ARLOKO JARDUERARE

**34.122 LANPOSTU**



EAE-REKIKO ENPLEGUA

**%6,28**

## “EUSKARA EZ DABIL DIRUA GALTZEN DUTEN SEKTOREEN ARTEAN”

ENEKO BIDEGAIN  
HUHEZIKO IRAKASLEA



Zeharka 3.748 lanpostu sortzen dituela estimatu dute azterlanean, baina, Jose Felix Diaz de Tuestaren ustez, nahiko kopuru pesimista da: “Euskarak ere sortzen ditu zeharka lanpostuak. Euskararen indarra ez da bakarrik eskola baten dabilen langilea, komunikabide baten dagoen langilea edo udaletxe baten dabilen euskara teknikaria. Horietako bakoitzak jende gehiagori eragiten dio. Zeharka jarri duten kopurua oso pesimista dela esango nuke. Esango nuke gehiago direla benetan zeharka sortzen diren lanpostuak”.

Olatz Osaren arabera, euskarari lotzen ez zaizkion lanpostuak euskalduntzea da orain erronka: “Garrantzitsua da, gainera, lanpostu horiek iraunkortzea eta baldintza duinekoak izan daitezen lortzea. Orain, aurrera egiteko garrantzitsua litzateke beste sektoreak euskalduntzea eta beste sektoreetako jarduna euskaraz egin dadin bultzatzea. Euskarak transbertsala beharko luke, eta, euskarari lotuta dauden lanpostu horiek azpimarratzearekin batera, euskarari zuzenean lotzen ez zaizkion lanpostuak euskalduntzea eta lan hizkuntza euskara izatea lortu beharko genuke”.

Eneko Bidegain irakasleak lanpostu gehiago sortzeko euskarak laguntza gehiago jaso beharko

lituzkeela aipatu du: “Interesgarria izango litzateke, gainera, Nafarroako eta Iparraldeko datuak ere ikustea. Indar handia egin daiteke oraindik herria euskalduntzeko eta euskaraz gehiago kontsumitzeko, eta egingo litzatekeen guztiarekin are eta lanpostu gehiago sortuko lirateke. Baina, horretarako, euskarari lagundu behar zaio”.


Oskar Elizburuk, bestalde, azpimarratu du euskaltegietan enplegua mantentzen ari dela eta etorkizunerako lanpostu gehiago sortzeko aukera dagoela: “Lanpostuak mantentzen ari dira eta hazteko aukera handia dagoela uste dut. Jende asko dago elebakarra dena eta ulertzerainoko pausoa lehenengo eta gutxieneko komunikazio bat lortzerainoko hautua egin beharko luke Eusko Jaurlaritzak. Baita Nafarroakoak eta Iparraldekoak, nahiz eta hor zailago ikusten dudana. Hor ikaragarritzko hazkundea egon daiteke. Orain gauden irakasleak bider bost-edo beharko lirateke, esate baterako, epe batzuetan lortzeko. Hor dirua dago, baina gastu hori inbertsioa dela ikusi da. Horregatik, euskarari inbertitu behar da. Onuragarria da, lanpostuak sortzen dira, aberastasuna sortzen da... beste arlo edo sektore guztietan bezala”.

### EUSKARAREN SEKTOREARI DAGOKION ENPLEGUA



HIZKUNTZAREN INDUSTRIA

**2.541 LANPOSTU**



EAE-KO BEG-REKIKO PISUA (ZUZENEKO ERAGINA)

**%3,07**

## “AZPIKATEGORIA BEZALA HARTUA IZAN DA EUSKARA”

OLATZ OSA  
ELKAR ARGIALETXKO ARDURADUNA



**EUSKARA-SEKTOREAK** Eusko Jaurlaritzaren ikerketan lau jarduera-sektore aztertu dituzte: hizkuntzaren industria, kultura eta hedabideen industria, hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak, eta administrazio publikoa.

Hizkuntzaren industrian, 2.541 lanpostu dau dela ikertu dute, gehienak euskaltegiak langileak (1.316) eta itzulpengintza sektorekoak (485). Hizkuntzaren industrian euskarari lotutako lan eta zerbitzuen urteko fakturazio bolumena 136 milioi euro pasatxo da urtean, eta 107 milioiko BEG produzitzen dute.

Euskal kulturagintza eta hedabideen alorrean 4.550 lanpostukoa da zuzeneko enplegua, eta urtean 407 milioi euro mugitzen ditu; kultura, aisialdi eta gizarte arloko zerbitzuetako elkarte eta enpresek 764 enplegu; komunikazioaren eta publizitatearen arloko enpresek 627 enplegu; eta kultur sortzaile autonomoek 616 enplegu. Urtean, 227 milioi euroko Balio Erantsi Gordina sortzen du kultura eta hedabideen industriak.

Hezkuntza eta unibertsitate arloko jarduerak 34.122 lanpostu hartzen ditu bere baitan. 20.000 lanpostu inguru Haur eta Lehen Hezkuntzan, 11.000 inguru Bigarren Hezkuntzan –Batxilergoa

eta Lanbide Heziketak barne-, eta 3.000 inguru unibertsitate mailako ikasketetan.

Administrazio publikoetan 1.511 lanpostu dau euskararekin zuzenean lotuta. Administrazio-ko enplegatutako izanik euskara zerbitzu eta arloetan lan egiten dutenen enplegua 716 lanpostukoa da, eta herri administrazioen kultura enplegutik euskarari inputatu beharreko enplegua 795 lagunekoa dela estimatu da.

**GORANZKO JOERA?** Azken urteei erreparatuta, euskarak ekonomian duen pisua eta eraginak gora egin duela esan daiteke. Baina nola egin dezake aurrera? Nola handi dezake gehiago ekonomian duen pisua?

Ibilbidea egiteko tarte badagoela, oraindik gorago jo ahal izango duela eta portzentajeak handiagoak izan daitezkeela uste du Olatz Osak: “Teorian hala beharko luke, euskaldun kopuruak gora egiten duen neurrian, potentzialki, behintzat, kontsumitzaile gehiago legokeelako. Hala ere, hazkunde hori ez da gertatzen uste edo nahi gure neurrian. Zergatik? Arrazoi asko egon litezke horren atzean, baina badago bat ezin ukatuzkoa. Erdarak ditugu gure gizartean nagusi, eta erda-

EUSKARAREN SEKTOREARI DAGOKION ENPLEGUA



KULTURA ETA HEDABIDEEN INDUSTRIA

**4.550 LANPOSTU**



EAE-KO ENPLEGUAREKIKO PISUA (ZUZENKO ENPLEGUA)

**%4,78**



## “EUSKARAN EGINDAKO GASTUA INBERTSIOA DELA IKUSI DA”

OSKAR ELIZBURU  
ARRASATEKO AEK-KO ARDURADUNA



retan sortzen diren kultur ekoizpenek, hedabideek... askoz ere presentzia indartsuagoa dute gizartean. Errealitate horretan euskarazkoa ikuzezin bilakatzen da askotan, eta euskaldunengana iristeko zailtasunak ditugu. Zailtasun hori gainditzeko ez dugun bitartean, zaila izango da euskararen merkatua haztea eta aktibatzea. Eta, hala ere, esan behar da, eta baloratu ere bai, euskaldunak, oro har, euskararenganako atxikimendu altua erakusten duela. Ahal duenetan, euskararen aldeko aukera egiten duelako, teoriarik espero litekeena baino neurri altuagoan. Hori azpimarratu eta txalotu beharra dago”.

Diaz de Tuestaren ustez, ezin da jakin non dagoen euskararen sektoreak eduki dezakeen sabaia: “Orain arte gorantz egin du, eta ez dakigu noiz joko duen eta zein den bere sabaia, sektore produktibo guztiek bezala. Oraindik garatzen ari da eta gora egiten ari da. Momentu baten ez du gehiagorako emango, politika ekonomiko jakin bat ez bada bultzatzen oraindik eta lanpostu gehiago sortzeko, baina gorantz doa. Horregatik, honen berri eman behar dela uste dut. Komeni da jendeak jakitea denok egiten ari garen esfortzua, hemen jende asko gaudelako lanean eta esfortzua egiten”.

Egiteke dagoen bidea azpimarratu du Oskar Elizburuk: “Oraindik asko dago egiteko. Badaude arlo batzuk oraindik ekonomikoki normalizatu gabeak. Gaur egun, euskararen munduan komunikabideak direla, diru laguntzak direla... ez dago finantzazio sakon baten barruan sartuta. Benetako garrantzia emateko bestelako arloek duten garrantzi bera hartu beharko luke. Debagoiena edo Gipuzkoa, adibidez, norabide edo adibide moduan har daitezke besteek bide beretik jotzeko. Horretara iritsiko balitz Euskal Herri osoa, ikaragarriko portzentajeetan ibiliko ginateke, eta euskara erdi normalizatuta egongo litzateke. Oraindik erritmoak txikiak dira, baina aurrera goaz eta hobetzeko aukerak daude”.


Ibili beharreko bidea dagoela azaldu du Eneko Bidegainek: “Azkenean, politika ere sartzen da. Nahi baldin badugu euskara normalizatzea, herri honetan hautu politiko batzuk ere egin beharko dira, eta indar handiagoa egin beharko da komunikabideak euskalduntzeko, indar handiagoa egin beharko da hezkuntza are gehiago euskalduntzeko, administrazio publikoak euskalduntzeko... Beti dago gauza gehiago egiteko. Orduan, garatzea baino ez zaio gelditzen”. ■

EUSKARAREN SEKTOREARI DAGOKION ENPLEGUA



ADMINISTRAZIO PUBLIKOIA

**1.511 LANPOSTU**



BALIO ERANTSI GORDINA EAE-REKIKO

**%4,5**

# HERRIKO DENDAK HERRIKO JENDEARENAK

**Iratxeren**  
altzari-denda

**Josebaren**  
gimnasioa

**Aitorren**  
okindegia

**Elsaren**  
fruta-denda

**Lauraren**  
zapata-denda



Herriko dendak herriko jendearenak dira; jende **langilea**,  
**lana** sortu eta gure kaleak **bizirik** mantentzen dituena.

**HERRIKO DENDEK ZURE LAGUNTZA BEHAR DUTE, EZ HUTS EGIN**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN ETA  
LEHIAKORTASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO  
ECONÓMICO Y COMPETITIVIDAD



Rosa Mondragon

# Gora zuek!

**B**adakit normalean tarte honetan iritzia emateko edota gai zehatz baten inguruan azalpenak emateko aprobetxatzen dela, baina, Aramaixon Euskararen Egunarekin lotuta ospatu ditugun ekintzak kontuan hartuta, ezin izan diot etsi eskerrak emateko dudan gogoari!

Bai, ondo diot: eskerrak emateko! Ez dakit aspaldi honetan herrian antolatu den ezertan horrelako erantzunik izan den! Euskararen ginkana, herri lasterketa, zine emanaldia, dantza emanaldia, hika ikastaroa... hainbat eta hainbat aramaioarrek hartu dute parte, eta, horregatik, eginiko ahaleginak eta sartu ditugun orduak merezi izan dutela uste dut!

*Aramaixon euskaraz bizi nahi dot!* mezua aldarrikatu dugu, ekintza guztietan presente izan dugun leloa, denon ahotan egon dena. Parte hartzaile guztiok hori uste badugu, lortuko dugu, bai horixe!

## EGINIKO AHALEGINAK ETA SARTU DITUGUN ORDUEK MEREZI IZAN DUTE

du parte-hartzea ere! Baliteke! Edozein kasutan, aramaioar ugari animatu da laguntzen, modu askotan, gainera: ginkanako galderak prestatzen, tabernari eta merkatariak, herri lasterketako antolakuntzan, korrika egiten, trikitalariak, hika ikasteko grina izan dutenak, kultur etxea arrimatu direnak, eta modu batean edo bestean “Aramaixon euskaraz bizi nahi dot!” oihukatu dutenak.

Agerian geratu da guztion inplikazioarekin antolatzen den edozein ekintzak aukera gehiago duela arrakastatsua izateko. Horregatik bai: gora zuek, aramaioarrok! ▣

## Joango zara aurtengo Durangoko Azokara?

Baduzu ohiturarik Durangoko Azokan liburu edo diskoren bat erosteko? Ala urtean zehar erosten dituzu?



**Aritz  
Alustiza**  
Musikaria

Urtero bezala, aurtan ere joango naiz, bai. Ez naiz, baina, disko berriak erosteko azokara arte itxaroten egoten. Normalean, diskoa argitaratu eta hurrengo egunean herriko dendara joaten naiz erostera. Aurtan, Esne Beltzak, esaterako, Durangon kaleratuko du diskoa, eta bertan erosiko dut. Durangok duen gauza politenetakoa da kontaktu zuzena izan dezakezula kultura arloko pertsonekin.



**Nagore  
Inda**  
Bibliotekaria

Azken orduan erabakitzen dut joan edo ez, baina uste dut beharrezkoa dela Durangoko Azoka, euskal kulturgintzako arlo ugari batzen dituelako. Bestetik, lagun zaharrekin elkartzeko tokia ere izaten da. Joan izan naizenetan beti egin izan dut bertan erosketaren bat, baina, egia esan, nahiago izaten dut liburuak urtean zehar liburu dendetan erosi, egun horietan erosi baino.



## Iñaki San Miguel



**Jose Antonio Azpiazu**  
Idazlea

Bai, joango naiz. Gainera, derrigorrez joan beharko dut, *Y los vascos se echaron al mar* liburua argitaratu dudalako eta sinadurak egiten izango naizelako. Durangoko Azoka hemengo kulturaren erakusketa da, errito bihurtu dena. Zerbait erosiko dut, gainera, oraindik zer ez dakidan arren. Urtean zehar ere badut ohitura, batez ere, nire ikerketak egiteko liburuak erosteko.



**Tere Gonzalez**  
Elkarte Lirikokoa

Ez naiz joango azokara. Astean zehar lanpetuta ibiltzen naiz eta jaiegunetan deskantsatzea gustatzen zait. Gainera, han jende ugari ibiltzen da eta ez zait gustatzen horrenbeste jendetza izaten den tokietan egotea. Hala ere, oso ondo iruditzen zait euskal kulturako jendea batzeko azoka egitea. Nik egunero irakurtzen dut liburu elektronikoa eta musika ere egunero-egunero entzuten dut.



**Aritz Arrieta**

## Tirania, politikagintza edo biak

Politikaren helburua gizartearen ongia da, eta gizartean bete dezake hori. Gakoa hor dago, helburuan. Ezinbestekoa da buruzagiaren figura. Kontua da ea norberak beste batek gobernatua izan nahi duen edo ez; hala, tirania gradua ikaragarri gordina izan daiteke, edo zolia. Beste batzuek gobernatua izan edo nork bere burua gobernatzea.

Gizartea estamentu askotan dago banatuta: familia, kuadrilla, lana... Tirania bertan ager daiteke, seme tiranoak, lagun tiranoak, ugazaba tiranoak... Baina alderdi barruan tirania agertzen denean, zer? Denontzako arazo bilaka daiteke; zergatik? Alderdi horretako buruzagia guk nahi edo ez gure gizarteko buruzagi hautatua izan daitekeelako eta guztion arazo bilaka daitekeelako. Tirano politikariek helburuak oso garbi dauzkate: norberaren figura goratzea eta bereganakoaren ongizatea bai edo bai besteen gainetik hobetzea. ▣

**Joxe Rojas**

TOKIKOM-eko Komunikazio  
arduraduna

# 5.000 baietz!

Urtebete da *.eus* domeinua sortu zela. Urtebete, sarritan aipatzen dugun *zortzigarren probintzia* gorpuztu zaigula, kontzeptu abstraktu izatetik neurgarria izatera pasa dela. Mugarik ez duen arren, haren Aldundi modukoa badu Euskal Herriko lurralde berriak: PuntuEUS Fundazioa. Hura izan da urteetako lan isilarekin lurralde berria sortzea lortu diguna, eta egun hauek aukera aparta dira egindako gutzia eskertzeko.

**Baten batek pentsa lezake** Fundazioaren lana amaitu egin zela domeinua bera sortzarekin batera. Baina hasiera baino ez zen. PuntuEUS Fundazioa euskal komunitatearen enbaxada digitala dela esan daiteke: azken hilabeteotan batekin eta bestearekin aritu dira lanean, euskara eta euskal kultura agerikoago egiteko asmoz: laster *.eus* izango den Twitterrekin, Googlerekin, beste hizkuntza txiki batzuetako domeinuen kudeatzaileekin... Ez dira geldi egotekoak.

Besteak beste, euskal hizkuntzak eta kulturak Interneten duten presentzia aztertzen duen Behatokia sortu du PuntuEUS Fundazioak egunotan. PuntuEUS Behatokiaren arabera, %17koa da euskararen erabilera Interneten. Edo, zehatzago esanda, Interneteko domeinu nagusietan (*.eus*, *.com*, *.es*, *.org*...) dauden webguneen %17k darabilte euskara, batez beste. Kanean baino zerbait gehiago, baina ez asko. Euskararen Kale Erabileraren azken neurketaren arabera %13,3koa da euskararen kale-erabilera. Euskarak badu, ordea, birika bat Interneten: *.eus* diren webguneen %88k erabiltzen dute euskara, hizkuntzarentzat arnas gune digitala sortuz.

**Gure domeinuak bizirik daraman** urtebetean, 4.500 domeinu izen erregistratu dira: %90 Euskal Herrian eta gainerakoak kanpoan. %34 enpresek

erregistratu dituzte, %19 erakunde publikoek eta %15 euskararen eta kulturaren arloko erakundeek. Webgune askok eman du .eus-erako jauzia; eta, horri esker, munduko 783 domeinu berriren artean egindako azterketan 4. postua lortu du .eus-ek kalitateari eta SEOri dagokionez. Eta tira, zenbakiez ari garela, ezin datutxo bat aipatu gabe utzi: Euskal Herri fisikoan bezalaxe, digitalean ere esanguratsua da Debagoienak egiten duen ekarpena. Izan ere, Arrasate da .eus domeinu gehien erregistratuta dituen laugarren udalerrria, EAeko hiru hiriburuen atzetik.

Urtebete domeinua sortu zela, eta zortzi PuntuEUS Fundazioak bideari ekin ziola. Agerian geratu da .eus Interneteko komunitateak ez duela mugarik: domeinua errealitate bihurtu zenetik, mundu zabaleko edozein webgune izan daiteke zortzigarren probintziako kide, baldintza bakar batekin: euskal kulturaz eta/edo euskaraz jardutea. Berdin dio fisikoki Euskal Herrian edo Japonian dagoen.

**Eta txikitasunaren betiko koplari** helduta, gutako batek baino gehiagok pentsatuko zuen duela urtebete munduan oso webgune gutxik beteko zituztela .eus izateko baldintzak; baina hara non mordoxka bat elkartu garen, 4.500, hain zuzen, euskararena mundu txikia delako mitoa apurtuz.

## Euskal komunitatearen enbaxada digitala da PuntuEUS Fundazioa

### Ez dago aitzakiarik zortzigarren probintzian ez erroldatzeko

Hala ere, ezin lozorroan geratu: gure hizkuntzak eta kulturak nazioartean presentzia handiagoa izatea nahi badugu, .eus domeinuak hazten jarraitu behar du. Horregatik bota digu erronka PuntuEUS Fundazioak: baietz guztion artean 500 domeinu-izen berri erakarri komunitate digitalera, 2015 hau zenbaki borobilekin bukatu eta, guztira, 5.000 izan gaitezen mundu mailako euskal komunitatea osatzen dugunok.

**Baina erronkaz gain**, hari erantzuteko erraztasun handiak ere jarri dizkigute PuntuEUS Fundazioko lagunek: Euskararen Nazioarteko Eguna eta .eus domeinuaren urtebetetzea dela eta, opari eske baino gehiago, opariak eskaintzera etorri zaizkigu! Abenduaren 3tik urtea bukatu arte, %80ko deskontua dago domeinu berrien erregistroan; beraz, 9,95 euroan eskuratu ahal izango dira. Ez dago aitzakiarik zortzigarren probintzian ez erroldatzeko! 5.000 baietz! ▣



Arantza Santesteban Komunikazioan aditua

# “Kazetaritza parekidea beharrezkoa da”

Komunikatzaileek lan-tresna berria dute eskura; lagungarria izango da genero aldagaia kontuan hartzeko eta automatizatutako zenbait prozedura ezbaian jartzeko.

TESTUA: LARRAITZ ZEBERIO ARGAZKIAK: JAGOBA DOMINGO

**H**izkuntzak ez dira sexistak, egiten dugun erabilera da sexista. Bazegoen kezka Goienan, eta udaberrian prestakuntza saio bat baino gehiago egin zituen Arantza Santestebanek (Iruñea-1979) Arrasaten. Amaitu zen ikastaroa, baina ez kezka, eta esku artean dugu orain lan-tresna berria: *Komunikazio parekiderantz kazetarientzako eskuliburu*. Durangoko Azokan aurkeztuko dute Arrasateko Udalak, Goienak eta egileak berak, Arantza Santestebanek.

## Zer dugu esku artean, Arantza?

Komunikazio parekidea lortzeko bidean kazetarien lana erraztuko duen erreminta bat. Hori da helburua, eta uste dut gauza praktikoa bat gelditu dela. Ez da formula magiko bat: hau aplikatuta egiten den komunikazioa ez da izango parekidea halabeharrez, baina uste dut lagunduko duela kontzeptu batzuen inguruan kontzientzia hartzen.

## Kontzientzia hartzea da lehenengo urratsa?

Bai, eta liburuaren lehenengo atalean lantzen ditut aspektu horiek, gehienbat. Bigarren atala praktikoa da: informazioa bilatzerakoan, eraikitzerakoan eta zabaltzerakoan normalean kontuan hartzen ez diren elementuak jaso ditut. Prozedura horietan genero ikuspegitik arreta jartzeko elementuak eskaintzen ditut.

## Zeintzuk dira normalean kontuan hartzen ez diren elementu horiek?

Esaterako, informazioa eraikitzerakoan bilatzea sexuaren araberako datu bereziak, eta datu horiek dauzkagunean emakumeen egoeraren gainean arreta berezia hartzea. Sortu den egoera horretan ze botere harreman gertatzen diren aztertzea —emakumearen kasuan baliabide

## LIBURUAREN FITXA

- **Izenburua:** *Komunikazio parekiderantz kazetarientzako eskuliburu*.
- **Egilea:** Arantza Santesteban.
- **Babesleak:** Emakume Txokoaren proiektua, Goiena Taldearekin elkarlanean.
- **Orrialde kopurua:** 52.
- **Aurkezpena:** Abenduaren 7an, 10:30ean, Durangoko Azokako areto nagusian.

ekonomikoak, egoera soziala, rola...—. Horiek kontuan hartzeko irizpide batzuk ematen ditut.

## Lan-tresna bat sortzea zen helburua, zerbait praktikoa. Bazegoen aurretik ezer?

Bai, jo dut jatorri askotariko estilo liburu askotara, bertatik neurri ezberdinak atera ditut eta gurera ekarri ditut. Kontsultatu ditut, batez ere, herrialde katalanetako estilo liburuak, Kantabriako bateren bat, Hego Ameriketakoak... Horretaz gain, eta euskararen kasuan hizkuntzaren erabilerarekin lotutako neurriak ere jaso ditut. Zehatzak dira eta atalka antolatu ditut: kirolak, estereotipoak... Eta azkenik, interesa dutenendako atal bat gehitu dut, non eskaintzen ditudan intereseko loturak eta kontsultarako webguneak, hurbilekoak eta erreferentzialak.

## Inguruko hedabideek garrantzia ematen diote komunikazio parekidea egiteari?

Kezka hori gero eta gehiago dagoela esango nuke, baina ezberdintasuna da zein hedabide ipintzen dituzten neurriak hori konpontzeko eta zeintzuek ez. Politikoki zuzena da esatea baietz, kontuan hartu behar direla



parekidetasunerantz abiatzeko aspektuak, eta gaur egun diskurtsiboki zalantza ezina da badagoela hutsune bat. Baina hedabide batzuek jartzen dituzte neurriak, eta beste batzuek ez. Hor dago aldea. Eta neurriak hartzea izan daiteke gaia estilo liburuan jasotzea, prestakuntza saioak egitea, pertsona bat hartzea genero oreka mantentzearen ardura izango duena... Gero, gertatzen da neurriak hartzen ez dituzten hedabideetan badaudela emakumeak sentsibilitate handia dutenak, eta, askotan, horiei esker lortzen da gai honetan arreta jartzea.

#### **Gehiago dira neurriak hartzen dituztenak hartzen ez dituztenak baino?**

Datuak aztertzen baditugu, estatu espainiarrean desoreka handia dago zuzendaritza postuetan. Euskal Herrira etorrira, egia da euskaraz ekoizten duten komunikabideen artean datuak hobeak direla. Goienaren kasuan, esaterako, gizezkoak baino emakume gehiago zaudete erredakzioan zein zuzendaritzan. Orokorrean, oraindik lan handia dago egiteko, azken finean, perspektiba guztia aldatzeaz ari garelako.

#### **Badaude ikerketak komunikazio parekidearen gainean Euskal Herrian eta kanpoan?**

Estatu espainiarrean badago estilo liburuaren, komunikabideen eta genero ikuspegiaren gainean lerro akademiko oso bat antolatuta, eta komunikabideetako profesionalek bideratua. Herrialde Katalanetan askoz ere sakonduagoa dute gaia. Esaterako, emakumeen behatoki bat

### **“USTE DUT HEDABIDE EK ETAKAZETARIEK BADUTELA ARDURA BAT PAREKIDETASUNAREKIN”**

dute, zeinek, beste gauza batzuen artean, hedabideen jarduna gainbegiratzen duen. Euskal Herriari dagokionez, Emakundek duela gutxi antolatu ditu gaiaren gaineko jardunaldi batzuk Begira batzordearen bitartez. Publizitate agentziekin eta hedabideekin dihardute, eta oraindik prozesuan den kode deontologiko batean ari dira lanean. Esan daiteke Euskal Herrian ibilbide bat egin dela, baina oraindik urrats gehiago egin behar dira helburua, azken batean, informazioan eta hedabideetan benetan eragitea bada.

#### **Gure hizkuntza euskara da. Gai honekin lotuta badu bereizgarririk?**

Hizkuntzak berez ez dira sexistak, erabilerak dira sexistak. Egia da euskarak ez duela maskulino generikoa edo orokorra, eta eraldaketarako oso tresna baliagarria izan daiteke, baina badaude pertsona batzuk ekarpen handia egiten ari direnak zentzu horretan. Esaterako, Amelia Barquin edo Amaia Alvarez. Planteatzen dute hizkuntza bat dela munduaren ikuskera baten adierazlea, eta zentzu horretan euskal pentsamendua edo kosmobisioa ere maskulinoa dela. Eta adibideak jartzen dituzte. Esaten dugu, *jaun eta jabe*; eta zergatik ez *andre eta jabe*? Edo esaten dugu *txapela buruan eta ibili munduan*; eta zergatik ez *zapia buruan eta ibili munduan*? Badago hor ere gizona erdigunean jartzen duen erabilera androzentriko bat. Orduan, euskarak ere baditu bere ajeak. Baina bai, genero markarik ez izateak bihurtzen du euskara oso tresna baliagarria parekidetasunaren eraldaketarako. Neurriak hartu behar dira.

#### **Eta zer iruditzen zaizu esku artean dugun tresna hau euskarazko tokiko komunikabide batetik etortzea?**



Iruditzen zait lana ondo egiteko kezka handia dagoela, eta uste dut eskertzekoa dela, kezka ateratzen denean gune horretatik. Kasu honetan, Emakume Txokoaren kezka zen, baina Goienak ere kezka bera zuen. Bat egin dute, eta elkarlan bat abiarazi dute. Eta, kasu honetan, ni etorri naiz eta prestakuntza ikastaro bat eman dut. Baina asuntza ez da hor bukatzen. Badago oraindik ere borondate bat urrats gehiago egiteko. Uste dut beharretik abiatu dela egitasmo hau, ikusten delako badagoela hutsune bat. Eta tresna bat sortu da... Eta uste dut justu hori dela prozesu egokia. Egiten denean benetan beharretik abiatuta, eta ez politikoki zuzena delako.

**Ikus-entzunezkoa ere garrantzitsua da. Hor ere egongo dira kontuan hartu beharreko irizpide batzuk?**

Bai. Azken hogeitaz urteotan ikus-entzunezkoak eztanda handi bat izan du. Askotan, idatzizko albistea baino lehenago iristen da irudia, eta hor, kazetaritzaren praktika batzuk aldatzen ari dira. Eskuliburuan lantzen dut gaia. Jaso ditut oso irizpide zehatzak bai irudiaren trataerari dagokionez, bai irudia atera aurretik kontuan hartu beharreko irizpideei dagokienez: enkoadraketa, fokatzea... Oso oinarritzkoak dira, baina horiek barneratuta aldaketa batzuk gertatuko dira. Hala ere, egia da ikus-entzunezkoarekin lotuta genero ikuspegitik ez dagoela oraindik ekoizpen teoriko eta praktikoa handirik.

**“PAREKIDETASUNA LANDU BEHAR DELA ESATEA POLITIKOKI ZUZENA DA. NEURRIAK HARTZEA DA KONTUA”**

**Eta hedabideak gai honetan ahalegin hori egiten duenean, zer jasotzen du irakurleak? Hartzaileak... ba, hartzailearen arabera.**

Badaude hartzaile batzuk hori eskatzen dutenak. Gutxiengoa dira: feministak edo oso politizatuak. Horiek eskertu egingo dute ahalegina. Baina sor daiteke baita ere kazetariaren eta hartzailearen arteko harreman berri bat non kazetariak ematen dizkion beste eduki batzuk, eta non hartzaileari irekitzen dizkion perspektiba berriak. Errealitatea ekoiztu egiten da. Nahiz eta kazetaritza saiatzan den beti ahalik eta irudi objektiboena ematen, esan daiteke ez dagoela objektibotasunik. Genero aldagaia kontuan hartzen badugu, inguratzen gaituenaren irudi justuagoa ematen dugu, eta genero aldagaia kontuan hartzen duen kazetaritza batek posizio bat hartzen du egitura patriarkatuak sortzen dituen desoreken aurrean. Ikuspegi demokratiko baten aldetik genero aldagaia kontuan hartzea bada pertsona guztien eskubideen alde egitea, nire ustez. Generoen artean dagoen desoreka konpondu nahi badugu, beharrezkoa da kazetaritza parekidea. Gaur egun, elementu horiek barneratzea hautu politikoa dela esango nuke. **Periferiako gaiak erdigunera ekartzea bada lan-ildo honetan jorratu beharreko beste eremu bat?**

Uste dut hedabideek eta kazetariak badutela ardura bat parekidetasunarekin: rola ez betikitzea, rol horiek nolabait aldatzea... Eta, nahi izanez gero, hedabideek gauza asko egin dezakete rol horiek eraldatzeko eta fokua beste leku batzuetan jartzeko... Beste modu batean esanda, periferiatik zentrorra ekartzeko normalean kanpoan gelditzen diren pertsona





eta eredu batzuk. Azken finean, eredu berriak eskaintzea.

### **Adibiderik eman dezakezu?**

Lan gatazken gaineko albisteak, esaterako. Gizonak badira protagonista, gehienetan, izugarrizko epika dago deskribapenetan: “Felix, 50 urte, bi seme ditu eta emaztea langabezian dago...”. Zoaz garbitzaile enpresa bateko lan gatazkaren gaineko albiste batera, eta irakurriko duzu: “Grebak 40. eguna bete du gaur. Langileak negoziaketetan daude patronalarekin...”. Epika guztia desagertu egiten da. Lan munduan gizonaren irudia handitu egiten da. Oreka elementuak landu behar dira, nire ustez.

### **Hori, hain justu, izan daiteke gure indarguneetako bat? Bereizgarri bat?**

Zalantzarik gabe. Iruditzen zait, gainera, etorkizuna hortik datorrela. Feminismoan urte pila bat daramazkit, eta, hasi ginenean, duela 20 urte, ez zegoen ia deus zentzu honetan. Oso zaila zen nork bere buruari feminista zela aitortzea. Gaur egun, feminismoak harrigarriki egin du aurrera. Lan handia egin da, oso profesionala eta oso konstantea... eta horrek eman ditu emaitza batzuk nazioartean, oro har, eta Euskal Herrian oso nabarmenki. Pentsatzen dut etorkizuna beste balio batzuetarantz doala. Instituzioetan, alderdi politikoetan, hedabideetan... badago tentsio bat generoaren gaiari dagokionez, eta beste gai batzuekiko ere bai. Etorkizuna hortik etorriko

**“ORAINDIK LAN HANDIA DAGO EGITEKO, AZKEN FINEAN, PERSPEKTIBA GUZTIA ALDATZEAZ ARI GARELAKO”**

da, eta uste dut garrantzitsua dela neurri batzuk hartzen hastea eta euskarazko hedabideei etorkizuneko balio horiek gehitzea.

### **Ikusten dizkiozu ajeak gaur egungo kazetaritzari?**

Ez naiz kazetaria, baina, izan dudan harremanarengatik, konturatu naiz eguneroko kazetaritzan, egunero atera behar den aldizkari horretan, oso automatizatuta daudela prozedura batzuk. Hasteko, iturriak, zeinengana goazen informazio bila. Gehienetan, eskura dauden horiek dira, eta hor ari gara errealitatea eraikitzen informazio iturrien arabera. Eguneroko kazetaritza horretan sortu nahi badituzu bestelako albiste batzuk, ohitura batzuk aldatu egin behar dira, eta eguneroko prentsan zaila da hori. Aldiz, konturatu naiz astekarietan edo gehigarrietan gehiago egiten dela ahalegin hori. Denbora luzeagoa dago, eta jendeak aurrez pentsatzen ditu gaiak. Hor badago denbora luzeagoa edukietan pentsatzeko. Nire ustez, ez da kasualitatea una honetan Euskal Herriko hedabideen gehigarri gehienetan feminismoarekin lotutako edo etorkinekin lotutako eduki asko lantzea. Astekari batek beste prozedura batzuk ditu eta beste gai batzuk lantzen ditu, mimo handiagoarekin.

### **Zure ustez, orduan, iturri guztiak ez dute zilegitasun bera hedabideendako?**

Ez. Mugimendu feministak lorpen handiak egin ditu azken urteotan, baina gaur egun, oraindik ere, ez du zilegitasun osoa eraso bat dagoenean, esaterako. Aktibatu ditu erantzunak, eta, askotan, informazio iturri da albistea eraikitzerakoan, baina, gehienetan, ez da bertsio ofizialaren garantea. ■

## GAIXOTASUN ERREUMATIKOAK

# Zer da artrosia? Eta zer artritisa?

ARGAZKIAK: AINHOA ETXEBERRIA

OSASUNA



**Ainhoa Etxeberria**

Dietista eta nutrizionista

**A**razo artikularrei buruz idatzi nuen azkenengoz. Lau ezagunenak azaltzen saiatu nintzen, eta azido urikoari edo gotari buruzkoa izan zen lehenengoa. Gaurkoan, artrosia eta artritisa azaltzen saiatuko naiz.

Denok dakigu ez direla berdinak, baina gutxi dira horien arteko ezberdintasunak zeintzuk diren dakitenak. Biak dira gaixotasun erreumatikoak, kronikoak, endekapenezkoak (degeneratiboak), mina ematen dutenak eta bizi kalitatea txikiagotzen dutenak.

**ARTROSIA ETA ARTRITISA** Artrosiak edo osteoartritisak artikulazioen

desgastearekin eta artikulazioen zahartzearekin du zerikusia. Egunero egiten ditugun mugimenduengatik gure kartilagoak desgastatu egiten dira, eta, azkenean, hezurak hezuraren kontra jotzen duenez, horrek hantura eragiten du eta mina ematen digu. Normalean, eskuetan, lepoan, belanetan eta mokorrean izaten dira.

Gizonezkoetan zein emakumezkoetan ager daiteke, baina emakumezkoetan goizago agertzen da, 45 urte inguruan; gizonezkoetan, berriz, 60 urte inguruan. Zer dela eta ezberdintasun hori? Menopausia izaten da horren errudun, kasu gehienetan.

Artritisa hanturarekin lotuta dago, *-itis* amaitzen diren gaixotasun guztiek hantura dagoela esan nahi du, eta, artritisaren kasuan, artikulazioen hantura dagoela esan nahi du. Zer dela eta izaten da hantura hori?

Horrek ez du zerikusirik zahartzearekin, beste arazo batzuekin baizik: infekzioak, kolpea hartu izana, gaixotasun autoimmunea...




**Belauneko artrosia**

Desgastea eragiten du kartilagoan

Argi dago oso bata eta bestea arrazoi ezberdinengatik sortzen direla, baina ekartzen dituzten ondorioak antzekoak izango dira: bietan mugitzeko zailtasunak izango ditugu, mina izango dugu eta gogortasuna igarriko dugu –gehienbat, goizean jaikitzean–.

**AURRE NOLA HARTU?** Zer egin deza-kegu gaixotasunok aurrera ez jarraitzeko edo sendatzeko? Bi gaitzetarako garrantzitsua izango da kirol pixka bat egitea, horrela giharrak ez direlako ahulduko, mugikortasuna ez delako txikituko, eta, bestetik, gure gorputza mugitzeak gure buruari lagunduko diolako ani-

**GAIXOTASUN ERREUMATIKOAK DIRA, KRONIKOAK**



### Belauneko artritisa

Hantura ikus daiteke artikulazioan

mo aldetik ondo egoten eta depre-siorik ez izaten. Izan ere, epe luzean mina dagoenean, batzue-tan depresioan erortzea ez da zaila izaten.

Pisu gehiegi izatea ere kal-tegarria da; beraz, elikadura zaintzea ezinbestekoa da. Eta zelan zaindu? Koipeak, azukreak eta azidifikazioa sortzen duten elikagaiak murriztuz edo kenduz.

Artritisaren kasuan, mina kentzeko belarrez prestatuko infusioak edo anpuluak, pastil-lak... gomendatuko ditugu, eta, gaixotasuna zerk sortu duen ikusi ondoren, infekzio batek sortua bada, beste belarren bat -ikus ondoko taula-.

Artrosiaren kasuan, beste era batean jokatu da: galdu-takoa baino gehiago ez galtzeko osagarriren bat hartuko dugu, eta mina kentzeko, belarrak -ikus ondoko taula-. ■

## Zenbait gomendio

### ARTROSIA

Artrosiari aurre egiteko edo prebentzio moduan hauek dira gure gomendioak:

- Kolageno hidrolizatua: mina kentzen laguntzeaz gain, gogortasuna gutxitu eta hantura jaisteko.
- Marrazo kartilagoa : kartilagoaren degenerazioa geratzeko, eta kolageno eta msm-a hobeto xurgatzen laguntzeko.
- Omega 3: artikulazioak ez deformatzeko, hantura txikitzeko eta malgutasuna emateko.
- Boswelia serrata: Indiako zuhaitz baten erretxina da. Hantura gutxitzeko eta analgesikoa denez, mina kentzeko.
- Magnesioa: hezurak indartzeko, muskuluak erlaxatzeko eta, aldi berean, mina eta hantura txikitzeko.
- Harpagofittoa: antiinflamatorio naturala da, beraz, mina kentzeko.
- Kanpotik ere lagun diezaiokegu gorputzari, kremak eta ukenduak erabiliz. Esaterako, arnika, silizio organikoa eta harpagofittoa kremak egokiak dira azalean igurtzeko. Malgache-z osaturiko krema ere oso interesgarria da.

### ARTRITISA

Artritisaren kasuan, hantura denez, hori kentzea komeni da lehenengo, eta badira murriztea komeni diren elikagaiak: tomatea, kafea, haragia, laranja eta alkohola. Eta osagarri moduan har daitezke:

- Sahatsa, harpagofittoa, azeri buztana eta nasailora: mina eta hantura kentzeko.
- Infekzioa badago, tipulaz, baratxuriz eta jengibreaz egositako ura edatea ona da.
- Omega 3: Mugikortasuna emateko.
- Kolageno: Mina kendu eta birsortzen laguntzeko.
- Silizio organikoa: Hantura kendu eta mugikortasuna emateko.



Omega 3 duten jakiak (goian) eta marrazo aleta.



# Mantentze-lan onena, bizikleta garbi izatea

TESTUA ETA ARGAZKIAK: ARANTZAZU EZKIBEL

**G**ero eta jende gehiagok erabiltzen du bizikleta; batzuek kirola egiteko erabiliko dute eta beste batzuek, garraio-bide moduan. Bada, bizikletaren gorakada ikusita, asko dira bizikletaren mantentze-lanak nola egin ikasi dutenak. Hainbat lan etxean bertan egin daitezke inolako arazo barik.

**GARBITASUNA** Kontuan hartu behar da bizikleta egoera onean mantentzeko garrantzitsuena garbitasuna dela. Bizikleta garbi eduki behar da; hala, erabili denean lokatzez zikindu bada, bizikleta bere tokian itxi aurretik garbitzea komeni da. Horrez gain, katea ondo olioztatuta izatea ere oso garrantzitsua da.

Bizikleta ondo mantentzeko, hauxe jakin behar da: zulatuak konpontzen, katea koipeztatzen eta kubiartak eta frenoak egoera onean mantentzen, besteak beste.

**BIZIKLETA MOTA** Hainbat gauza izango ditugu kontuan, baina jakin behar dena da mantentze-lana ezberdina izango dela errepedeko bizikleta izan edo mendiko bizikleta izan. Orokorrean, errepedeko bizikletaren mantentze-lana samurragoa izaten da –mendiko bizikletak diskozko frenoak izan ditzake, eta baita suspentsio bikoitza ere–.

Hori horrela, askotan, mendiko bizikletaren mantentzea garestiagoa eta nekezagoa izan

daiteke. Gainera, mendian kolpeak hartzea samurragoa izaten da, eta, ondorioz, bizikletak lasaierak izan ditzake. Zikindu ere askoz gehiago zikintzen da; horregatik, garbitzea oso garrantzitsua izaten da.

Bizikletan dabiltzala zulatu bat izaten denean, ohikoena ordezko ganbera jartzea izaten da; etxera itzultzean konponduko da zulatua. Zulatuak ekiditeko oso garrantzitsua da gurpilak behar bezala puztuta izatea, presio egokian. Gerta daiteke denbora luzez gordeta izatea bizikleta; hala, berriro ere har-

tzerakoan gurpilak ondo puztuko dira.

**BIZIKLETA TAILERRERA** Kubiartak egoera onean izan behar dira; gastatzen direnean, aldatu egin behar dira.

Kanbioak erregulatzea ere egin beharreko lana da. Lan hori, baina, ez da hain samurra izaten. Horretarako, bizikleta tailerrera eramatea da egokiena. Horrez gain, istripuak izatean, edo konponketaren bat egiterakoan ez bagaude ziur, komeni izaten da bizikleta tailerrera eramatea. ▣



## Zulatuak konpondu

Zulatuak konpontzeko, partxeak eta kola behar dira. Kubiarta ondo ukitu behar da barruan izan dezakeen arantza –edo bestelakoa– kentzeko. Zulatua koska baten kontra ere egin daiteke –kasu horretan, bi zulo izango ditu–.



## Katea olioztatu

Katea ondo olioztatzea oso garrantzitsua da. Horretarako, lurra paperarekin babestea komeni da: bizikleta buruz behera jarriko da. Lehenengo, trapu batekin katea garbitu, eta ondoren olioztatu: katearen maila bakoitzean tanta bat bota.



Bizikleta-zale bat bere bizikletari konpontze-lanak egiten.

## Konpontzeko guneak Oñatin

Bizikleta konpondu eta puntuan jartzeko bi gune publiko jarri dituzte Oñatin. Udalak eta BaiBike enpresak elkarlanean jarri dituzte aipatutako guneak. Antton Zubia oñatiarra da BaiBike-ko buruetako bat.

“Oinarrizko konponketak egiteko guneak dira”, azaldu du Zubiak. Batetik, gurpilak puzteko gunea dago; eta, bestetik, bizikleta zintzilikatu eta oinarrizko konponketak egiteko gailuak daude.

“Beti ematen dudan aholkua da bizikletak ez duela txistuka joan behar; hau da, bizikletak ez du zaratarik egin behar”, dio Zubiak.



### Kubierten egoera

Zulatu bat izandakoan, batzuetan ganbera aldatzea bakarrik nahikoa izango da baina beste batzuetan kubierta ere aldatu beharko da. Horrez gain, erabileragatik kubiertak gastatu egiten dira eta aldatu egin behar izaten dira. Egokiak aukeratu behar dira.



### Frenoen egoera

Frenoak takozkoak edo diskozkoak izan daitezke. Lehenengo kasuan, takoak gastatzen direnean aldatu egingo ditugu; diskozko frenoen kasuan, pastillak dira aldatu beharko direnak. Kasu horretan, pistoiak garbitzea ere komeni da.



Oñati, Bidaurreta parean.



# Pentsatu oparitu aurretik

ARGAZKIAK: GOIENA

ADITUEN ESANETAN



**Arantza Osoro**

Txatxilipurdi elkartearen kidea

**G** abonak gerturatzeaz bat, telebistako publizitatea ugaritzen hasten da, batez ere jostailuen kasuan. Haurren inguruan gabiltzanok honek duen eraginaz ohartzen gara, baina, sarri, haurrek eskaturiko jostailua oparitzen ahalegintzen gara, onena delakoan edo ilusioa egingo diolakoan, beste ezertan pentsatu gabe.

Ez dugu haurrekin jostailuen inguruan hitz egiteko ohiturarik, ez dugu momenturik hartzen gai honetaz hitz egiteko. Ondorioz, ustekabeak izaten ditugu: aukeratutako jostailuak baino gehiago, iragarkian agertzen diren beste irudi batzuek txundituta uzten dituztelako eta horrelako zerbaiten esperoan aukeratutako jostailua ez delako beraiekin uste bezalako.

**ONDO PENTSATU** Beste edozer gauza –arropa, oinetako, etxerako tresna...– erosteko denbora hartzen dugun bezala, jostailuei ere

merazitako denbora eskaini behar diegu. Jostailu motak ezagutu, etxean ditugun jostailuak aztertu –hauen erabilera, haurren beharrak asetzen dituzten...–, denda ezberdinetan ikuskatu...

Jolasaren bitartez eta jostailuak bitartekari izanik, haurrek elkarbizitzen ikasten dute, autonomoagoak izaten, mugak gainditzen, emozioak bideratzen, komunikatzen, irabazi edo galitzen... Horregatik, jostailua erosi aurretik, ondo pentsatu eta irizpide ezberdinak hartu beharoko genituzke kontuan. Ondoko taulan jaso ditugu, hain zuzen, horietako irizpide batzuk.

Agian, kontuan izan beharreko gauza askotxo dira. Baina, batez ere, haurrekin hitz egitea eta dendetara joatea, eskatu nahi duen hori nolakoa den ikusteko, ariketa polita da, nahiz eta batzuetan, gero, dendatik atera ezinik ibili behar.

**EUSKARAZKO JOSTAILUAK** Bestalde, nahiz eta iragarki ezberdinek erakutsi ez, badaude aproposak eta erakargarriak diren euskarazko jostailu ugari. Gaur egun, zoritxarrez, mota hauetako jostailuak ezagutzeko dendetara hurbiltzea besterik ez dugu. Horrela bakarrik ezagutu ditza-kegu euskarazko jostailu mota ezberdinak eta adin tarte ezberdinei zuzendutakoak egon badaudela. Euskarazko jostailuak



**HAURREKIN BERBA EGIN  
ETA DENDETARA JOAN,  
ESKATU NAHI DUENA  
NOLAKOA DEN IKUSTEKO**





Txatxilipurdik  
Arrasaten  
egindako  
jostailuen truke  
azoketako bat.

argitaratzen dituzten argitale-  
txeen lana goraiatzekoa da,  
eta, erosi beharra izanez gero,  
nire gomendioa euskarazko jos-  
tailuak erostea litzateke –eus-  
karaz jolastera animatu nahiko  
nizuke haur, gaztetxo zein fami-  
lia guztiak–.

Bestalde, aipatu badirela bes-  
te bide batzuk jostailuak erosi  
gabe lortzeko; trukearen bitartez  
edo sortuz lortu ditzakegu: bir-  
ziklatuaz eta aldi berean proze-  
suan primeran pasatuz ikasiaz,  
naturako elementuez baliatuz  
jostailu bihurtzeko sormena  
garatuz...

Dena den, haurrentzat edo-  
zein jostailu baino garrantzi-  
tsuagoa da heldu batekin jolas-  
teko aukera izatea.

Adituen esanetan, jolasa da  
bizitzeko beharrezko duguna eta  
jolasaren bitartez ikasten dugun  
guztiz askoz gehiago oroituko  
gara ikastetxeetan erakusten  
digutenaz baino. ▣

Gure adituendako galderak dituzula?  
Bidali zure zalantzak, eta argitzen  
ahaleginduko gara.  
[mbelastegi@goiena.eus](mailto:mbelastegi@goiena.eus)

## Gomendioak

Jostailuak erostera  
goazenean kontuan  
hartzea komeni den  
zenbait irizpide:

- Lehendabizi, haurrak  
norekin jolasteko  
aukera izango duen  
jakitea komeni da:  
anai-arrebarik baduen,  
helduekin jolasteko  
aukerarik baduen,  
bakarrik jolastu  
beharko duen.
- Kontuan izan behar  
dira haurren adina,  
gustuak eta garapen  
maila. Haurren  
hezkuntza maila eta  
gaitasunetara  
egokitutakoa izatea  
komeni da.
- Dibertigarria, interesa  
piztuko duena eta  
sormena sustatzera  
bideratuko duena  
bada, askoz hobeto.
- Erabilera arauak  
ulertzeko moduan  
izango dituena.
- Jolasteko aukera bat  
baino gehiago  
eskainiko dituena bada  
eta taldean edo  
bakarka jolasteko  
aukera eskaintzen  
badu, askoz hobeto.
- Sexuen araberako  
ezberdintasunik egingo  
ez duena.
- Konponerraza izatea  
komeni da.
- Segurtasun  
betebeharrak dituela  
ziurtatzea, Europako  
Batasuneko CE ikurra  
izanik.
- Jostailurik onena ez da  
garestiena, ez eta  
merkeena txarrena.
- Hobe da jostailu gutxi  
baina ondo  
aukeratutakoak eta  
kalitatezkoak izatea.

# Etxean egindako postreen eskaintza handia Larrinetxen

ARGAZKIAK: AMAIA TXINTXURRETA

OTORDUAN



## Ainhoa Urrutia

Sukaldaria  
larrinetxe@larrinetxe.com

Iñaki Vicario arrasatearrak orain dela 18 urte zabaldu zuen Arrasateko Udala auzoko Larrinetxe jatetxea, eta hainbat sukaldari profesionalek dihardugu bertan lanean.

**Lagunarteko jatorduetarako** edota ospakizunetarako toki aproposa daukagu. Ingurune paregabean dago, eta Udalatx menditik edo Besaidetik buelta bat eman ostean, gure jatetxean nahi dena hartzeko aukera

Udalatx mendiaren magalean dago Larrinetxe eta terraza zabala dauka bertako parajeekin gozatzeko.

## Bezeroen gustukoa

Hauxe da aukeratu dudana postrea: pantxineta. Zergatik? Postreen artean arrakasta gehien duenatariko bat delako. Hasieratik daukagu kartan eta bezeroek asko estimatzen dute. Eskatu eta gero sartzen dugu hostorea labera, beraz, epela ateratzen dugu, eta hori eskertu egiten dute. Postre bat izateko, erraza da egiteko. Konplikatuena hostorea egitea da, baina dendetan eros daiteke gaur egun, beraz, egindakoa eros daiteke. Edozeinek etxean egiteko modukoa da. Bezero gozozaleenak, txokolatea gainetik botatzeko eskatzen digute.

ederra daukagu. Sasoi honetan, gainera, salda beroa eta txorizoa ere ematen ditugu, anoak edota errazioak ere baditugu, baita plater konbinatuak eta ogitartekoak ere.

**Kartari dagokionez,** eskaintza zabala daukagu: bai arrain freskoetan, baita haragitan ere.

**Etxean egindako postre** ugari ere baditugu. Arrakasta handien izaten dutenak hauek dira: ondorengo orrian dagoen pantxineta eta gazta-tarta. Gazta-tartari dagokionez, labean egindakoa izaten da; menbrilloa eta intxaurreak jartzen dizkiogu, gazta freskoaz gain. Bi horiek dira arrakastatsuenak, baina, besteak beste, gatzatua ere sarri eskatzen digute bezeroek. ■



Arrasateko Larrinetxe  
jatetxean prestatutako  
pantxineta.



## Pantxineta

### Osagaiak (4 lagunendako)

Hostorea, 350 g \_\_\_\_\_  
Almendra \_\_\_\_\_

GLASATU ERREALA \_\_\_\_\_  
Arrautza zuringoa, 1 \_\_\_\_\_  
Azukre-hautsa, 100 g \_\_\_\_\_

PASTEL-KREMA \_\_\_\_\_  
Esnea, litro erdi \_\_\_\_\_  
Kanela adar bat \_\_\_\_\_  
Azukrea, 100 g \_\_\_\_\_  
Arto-irina, 30 g \_\_\_\_\_  
Gurina, 30 g \_\_\_\_\_  
Arrautzak, 2 \_\_\_\_\_  
Gorringoa, 1 \_\_\_\_\_

TOFIA \_\_\_\_\_  
Azukrea, 100 g \_\_\_\_\_  
Esne-gaina, litro erdi \_\_\_\_\_

### Prestaketa

1. Tofia egiteko, jarri azukrea lapiko baten sutan, karamelua egin arte. Gehitu esne-gaina, eta utzi urtzen. Gero, sartu hozkailura, eta hoztu ostean muntatu.
2. Glasatu erreala egiteko, hartu zuringoa eta joan gehitzen azukre-hautsa, zuri-zuri gelditu arte.
3. Pastel-krema egiteko, jarri sutan esnea, kanela adarrarekin egosi arte. Eta beste ontzi baten azukreari bota arrautzak, gorringoa eta arto-irina, eta nahastu hagaxka batekin. Esnea irakiten hasten denean, su-eztitan, gehitu nahasketa hori esnari. Nahastu sendotu artean, sutik atera, gurina gehitu eta nahastu berriro.
4. Jarri bi hostore-xafla plaka baten. Bata utzi dagoenetan, eta besteari goian jarri glasatu erreala eta almendra txikituta. Sartu labera 220 gradutan, 10 minutuz.
5. Hostorea labetik atera eta plater batean jarri. Azpian jarri hostore-xafla, horri koilararekin zulotxo bat egin bertan pastel-krema sartzeko, horren gainetik jarri tofia, eta ondoren jarri almendrak dituen hostore-zatia.

Denbora: 30 minutu. Zailtasuna: ★★★★★

## LARRINETXE JATETXEARI ESKER IRABAZI BI LAGUNENDAKO OTORDUA. HARTU PARTE:

📞 943 25 05 05 📧 [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) 📞 KLUBA Jatetxea [bazkidearen zenbakia] 688 69 00 07 zenbakira.

Arantza Zeziaga Mondragon (Aretxabaleta).

Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezetzatzeko, helbide honetara idatzita: [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus)

**goienakluba**<sup>™</sup>  
Euskara irabazle, denok irabazle!



Itziar Martinez Diseinatzailea

# “Diseinu batek duen lana baloratzen dut”

TESTUA: MAIDER ARREGI ARGAZKIAK: ITZIAR MARTINEZ, GOIENA ETA M.A.

**P**atroigilea da Itziar Martinez (Bergara, 1983). Hala ere, bere ibilbidea diseinura bideratu gura du.

Eta egindako lehen urratsek izan dute emaitzarik; izan ere, Bergarako moda desfilearen baitan antolatutako diseinu lehiaketa irabazi berri du.

**Diseinuaren mundura bideratu gura duzu zure ibilbidea.**

Bai. Nik patroigintza ikasi dudan arren, urrats guztiak neuk egitea dut helburu: diseinatzaile izan gura dut. Diseinatzetik sortzerako bidea egin gura dut; patroia egin bai, baina baita josi ere.

**Patroia da guztiaren oinarri?**

Arkitekto batek eraikin bat egiten duen moduan, arropa baten pieza guztiak atera behar dituzu patroia ateratzeko. Patroia egin aurretik, neurriak, josturak, piezak... dena kontuan eduki behar duzu eta argi eduki zer nahi duzun egin.

**Diseinua, gizonetzkoendako ala emakumezkoendako?**

Ez dut bereizten. Niri, diseinatzea gustatzen zait; berdin dit emakumea, gizona edo haurra izan. Burura etortzen zaidana sortzea gustatzen zait.

**Bergarako diseinatzaile berrien lehiaketara aurkeztutakoa, ordea, gizonetzkoendako da.**

Lehiaketara ohikoena da emakumezkoen diseinuak aurkeztea. Nik gizonetzkoena eta emakumezkoena, biak neuzkan arren, arriskatu egin nuen, eta, gizonetzkoena bereziagoa zelakoan, horixe aukeratu nuen.

**Epaimahaiak zer baloratu du?**

Desfilearen ostean, epaimahaiko kideek diseinu guztien oihalak ukitu eta patroiak aztertu zituzten. Kalitatea eta originaltasuna ere kontuan hartu zuten.

**Nolako diseinua da?**

Txandalaren oihala daukan trajea da. Izan ere, estiloarekin eta oihalarekin jokatu gura izan dut. Eskoziako trajeetan inspiratu naiz. Hala, txaketak tartan koadrodun estanpatua daukan txaleko bat darama. Jendea harritu egiten da txaketa eta txalekoa bat eginda dagoelako eta dena pieza bakarra delako. Galtzak, aldiz, eroriak dira ipurdi aldean.

**Zelako esperientzia izan da?**

Oso ona. Lan asko egin dut, baina horrenbeste lan egin izan ez banu, ez nukeen izango daukadan poztasuna. Asko lagundu didate gainera.

**Horrelako ekimen bat bultzada handia izan da hasiberri batendako.**

Zalantza barik. Zortea izan nuen dena oso ondo atera zelako. Jendea laguntzeko prest neukan: modeloa, makillatzaileak, Anezkako





Diseinatzaile gaztea azken ukituak ematen saria jaso berri duen diseinuaren txaketari.

Bergarako moda diseinatzaile lehiaketan, Martinez, aurkeztutako diseinuarekin.

neskak, desfilearen antolatzaileak... Izugarritzko babesa izan dut. Bidean horrelako animoak eta babesa jasoz gero, errazagoa eramaten da lan karga; kar-kar.

**Josten jarraitzen duzu?**

Bai. Eguaztenetan, ahal dudanean, Anezkara joaten naiz josten trebatzen jarraitzeko.

**Ze diseinu mota sortzen dituzu gusturen?**

Ia denak. Diseinu baten atzean ez dut ezer zakarra ikusten; daukan lana baloratzen dut.

**Jendeak apreziatzen du?**

Apreziatu bai, baina baloratu ez. Jendeak nahiago du gauza on bat eduki, baina hamar kalitate kaxkarrekoak.

**Zein erreferente dituzu?**

Ez da kanpora begira jarri behar. Bertan diseinatzaile oso onak ditugu; Maite Albes arrasatearra, adibidez. Gasteiz On desfilean benetan lan ikusgarriak eskaini zituen. ■

KOLABORAZIOA



**Ainhoa Garitano**

Moda aholkularia

ainho.ainhoa@hotmail.es

**Gabonetako opari aproposa**

Gabonak badatoz, eta aitzakia ederra izaten da opari bat eskatzeko edo egiteko. Aurten zer eskatu nahi duzu? Aukera desberdinak dauzkagu hotzari aurre egiteko. Kostata iritsi da negua. Eta hotza burutik artzen denez, kolore askotan dauden borladun gorroak daude modan. Bufanda batekin konbina ditzakegu, gainera. Baina, egia esan, inbertsio onena, zalantza barik, berokia da. Hau bai opari ona! Askotariko aukera eta preziodunak daude. Eta zergatik? Bada, ez delako berdina lumaz edo poliesterraz egindako berokia.

Baina nik opari on bat eskatzekotan, eta oraingo hotzak ikusita, Australian UGG etxeko botak eskatuko nituzke. Ardiaren ilearekin egindako botak dira; gure hankak bero mantentzeko bota parekorik ez dugu aurkituko.

Ondo pasa Gabonak eta datorren urte arte! ■





**N**elly Diez bergararrak 2015eko Espainiako Txapelketa irabazi du F3Q-ACRO modalitatean. Aeromodelismo mota horretan, atoiari eraman diren belaontziekin akrobaziak egiten dira. Bere bikotekideak atoiotzia maneiatzen du, eta ondoren, Nelly Diezen txanda heltzen da: “Atoiotzia berak kontrolatzen du, eta nik belaontzia. Belaontzia motorrik gabeko aireontzia izango litzateke, eta bi aireontziak 25-30 metro inguruko soka batekin lotuta joaten dira. Bera aurretik joaten da, 30 metro inguru, eta ni atzetik. Altuera egokira heltzean denean, belaontzia askatzen dut, eta lehiatzen hasten naiz. Hegaz egitearen sentsazioa kristorena da, aske sentitzen zara. Hitzekin azaldu ezin daitekeen gauza bat da”.

**BI AIREONTZI** Atoiotzi hegazkina potentzia nahiko handikoa izaten da, gasolinadun motor batekin, normalean. 3 metroko hego-hedadura du, eta 14-15 kiloko pisua. Motorra 111 zentimetro kubikoduna da, bi zilindrokoa. Aireontzi honek ahalik eta gutxien pisatu behar du, eta, belaontzia askatzean, ahalik eta lasterren lur hartu behar du.

Belaontzia FOX bat da, benetako hegazkin baten erreplika, hain zuzen ere. Errealak 14 metro ditu, eta Nelly Diezenak 4 metro. 10-11 kiloko pisua du, eta ez du motorrik. Pilotuek hegazkinaren buztana eta hegoetako aleroiak kontrolatzen dituzte, batez ere, gora, behera eta alboetara mugitzeko. Gainera, belaontziekin frenoak dituzte hegoetan. “Kon-



MOTORRA

# Airean aske

TESTUA: JOSU BILBAO ARGAZKIAK: MARCOS MARTINEZ ETA JOSE PUENTE

traste polita da biak airean ikustea. Atoiotziaren motorraren hotsa eta belaontziaren liratutasuna”, dio Bergarako pilotuak.

Aeromodelismoan aritzeko ez da inolako gidabaimenik behar, baina, droneen legedia dela-eta, hegaz egiten dakitela ziurtatu behar dute teknikari baten aurrean. “Ez da gidabaimenik behar, baina hegaz egin dezake-

zula demonstratu behar duzu. Gainera, federatuta egotea eta aseguruia edukitzea beharrezkoa da, eta meteorologiako eta aeronautikako ezagutzak eduki behar dira”, adierazi du Diezek.

**EGURREZKO HEGAZKIN BAT** “Nire nebak 80ko hamarkadan hegazkin txiki bat oparitu zigun, egurrezko hegazkin dotore bat.





Ezkerrean,  
atoiontzia eta  
belaontzia, hegaz  
egiten. Behean,  
Nelly Diez eta  
bere bikotekidea.

Nelly Diez pilotu  
bergarra,  
Segovian jokatu  
zen F3Q-ACRO  
Espainiako  
Txapelketan.



Hegazkin hori muntatu genuen eta jaurtitzean hegaz egiten zuen. Ondoren, belaontzi bat erosi genuen, urrutiko kontrolarekin zihoana. Hor gustua hartu genion”, azaldu du Nelly Diezek.

Aireontziekin lehiatzen, hala ere, orain dela gutxi hasi zen Bergarako bikotea. “Ni 2013an hasi nintzen lehiatzen. 2013-2014an txapeldunordea izan nintzen eta 2015ean maila goreneko txapelduna izan naiz. Azkenaldian, motordun hegazkinekin ere hegaz egiten dugu, F3A modalitatean”, dio Nelly Diezek.

**TENTSIOA TXAPELKETETAN** Lehiaketetan oso giro ona egoten den arren, hegazkin batekin ibiltzeak tentsioa sortzen du pilotuen artean. “Giro ona egoten da txapelketetan, bai. Lehiatzeko orduan tentsioa eta urduritasuna egoten da, baina giroak asko laguntzen du. Hegazkinak dira, azken finean, eta, airean dauden bitartean, adi eta tentsioan egon

## “AURTEN OSO MAILA ALTUA EGON DELA ESAN DUTE EPAILEEK”

NELLY DIEZ

behar duzu. F3Q modalitaterako hegazkin akrobatiko errealean legedia bera erabiltzen da; beraz, dena nahiko erreala da, azkenean”, aipatu du Nelly Diezek.

“Aireratzea modu errealean egiten da, eta akrobaziak egiten dituzunean epaileek figura bakoitzaren puntuatzen dute. Akrobazietan aurretik erabakitzen dituzten taula batzuk jarraitu behar dira. Gero, ondo burututa dagoen, harmonia dagoen, dotoretasuna duen edota figura guztiak altuera berean egiten diren puntuatzen dute. Aurten oso maila ona izan dela azpimarratu dute epaileek, eta, gainera, 17 lehiakide izan ginen, nahiko zenbaki polita”, azpimarratu du Diezek. ▣

KOLABORAZIOA



**Xabier Fernandez 'Purito'**

Motorzalea

xabifp@gmail.com

## Auto klasikoak, errentagarri

Bada urrean inbertitzea baino errentagarriagoa den zerbait: auto klasikoak. 80-90eko hamarkadako auto batzuk prezioa bikoizten ari dira. Ez da erraza jakitea auto bakoitzaren tendentzia zein izango den, baina, asmatuz gero, etekina oso handia izan liteke. 1986-1991 arteko BMW M3-ak 2. eskuan orain dela 3 urte 12.000-15.000 eurotan zeuden. Gaur egun, 40.000-50.000 eurotik behera aurkitzea zaila da. Beste modelo batek ere izan du sekulako igoera: BMW M3 Csl-a. 2003ko edizio berezi hau 30.000-40.000 eurotan zegoen orain dela gutxi. Gaur egun, 100.000 euro balio dezakete. Baina badira auto merkeagoak. Golf Mk1 GTI-a duela gutxi 2.000 euro baino gutxiagoren truke lortu ahal zen. Orain, 6.000-12.000 eurora igo dira. Aitaitaren garajera joan beharko dugu hautsez betetako autoaren prezioa loteria kupioia balitz bezala interneten begiratzeko. ▣

# Miguel Vela

TESTUA: JAGOBA DOMINGO ARGAZKIAK: MIGUEL VELA

**G**aur egun Tulumen (Mexiko) bizi den arren, urteak eman ditu gurean Miguel Vela artista

mexikarrak. Hainbat debagoiendarrek euren azalean dute haren zatitxo bat, eta horma batzuetan ere utzi du aztarna.

## **Nola murgildu zinen tatuajeen munduan?**

Betidanik marraztu izan dut, nire gurasoak artistak ziren eta txikitatik izan dut grina hori barruan. Tatuatzen, ordea, 2004an hasi nintzen. 2001ean Mexikotik alde egin nuen, bidaiatzeko gogoz, artea bidelagun nuela; egon naizen toki gehienetan margotu ditut muralak, koadroak...

bizitza ederrago egiteko asmoz. Horrela, Madrilgo tatuaje estudio batean mural bat egiten nengoela etorri zitzaidan tatuatzen hasteko nahia.

## **Eta ostean, momentu erabakigarria heldu zen.**

Bai; 2004an, Asian bidaiatzen nengoela, tsunamia gertatu zen, eta esperientzia hartatik bizirik irten ostean, bi aldiz pentsatu gabe erosi nituen tatuatzeko

makinak. Orduan hasi zen nire bidaia pertsonala. Hurrengo urtean zehar, Bartzelonako Soulhunterren lagun batzuekin ikastun egon nintzen eta asko ikasteko aukera izan nuen.

## **Estilo propioa duzula esan daiteke, ezta?**

Ez dakit definitutako estilorik daukadan, baina ezaugarri batzuk baditu. Adibidez, Mexiko prehispanikoaren influentzia oso gustuko dut eta nabarmena da; ikurrak, nire arbasoen mitologia... Horrez gain, tatuaje tradizionalaren eragina izan dut; marra lodiak eta elementu xumeak. Elementu geometrikoak eta kolore asko erabiltzea ere gustatzen zait; ondo pasatzea

da nire helburu nagusia!

## **Orain Tulumen egon arren, duela gutxi Aretxabaletan zeuden.**


2003a ezkerro Euskal Herrian denbora luzea pasatu dut; lagun oso onak egin ditut eta bertako herriak eta kultura ezagutzeko aukera paregabea izan dut, horren parte izan arte. Lotura berezia dut; izan ere, Angiozarren, Bergaran, Arrasaten eta Aretxabaletan bizi izan naiz eta azken hiru urteetan, tarteka, Aretxabaletako Raijin estudioan lanean ibili naiz. Zorte handia da izan dut, artista eta lagun ezin hobeak daude bertan.

## **Urte hauetan guztietan asko aldatu da joera?**

Bai, bilakaera handia egon da, eta horren lekuko izan naiz. Oraindik ere gogoan dut jendeak zuri-beltzeko tatuajeak bakarrik eskatzen zituenean; sorginak, ipotzak, letra txinatarrak eta tribalak... Gaur egun, berriz, hori aldatu egin da, konfiantza handiagoa dute tatuatzaileengan, eta gauza berriak egiteko aukera eman digute. Komunikabideek ere zerikusia izan dute tatuajeen zabalkunde eta normalizazioan. ■







**Tatuaje, akuarela  
eta muralak**

Artista mexikarraren  
obra batzuk.





Anari Alberdi Musikaria

# “Metaforekin gauzak hobeto ulertzen dira”

TESTUA: AITZIBER ARANBURUZABALA ARGAZKIAK: A. A. ETA AMAIA TXINTXURRETA

**E**uskal Herriko musika panoraman aspaldiko bidaiaria da Anari Alberdi (Azkoitia, 1971). Sortzeko momentuan singularra dela dio, eta zuzenekoetan, berriz, plurala. Borja Iglesias (gitarra), Drake (baxua), Mariano Hurtado (pianoa eta teklatuak) eta Mikel Txopeitia (bateria) ditu gaur egun bidaiia-lagun. Kooltur Ekintzak-en eskutik, Arrasaten izan da *Aurrekari penalak* aurkezten.

**Bosgarrena duzu dagoeneko. Gustura zaudela diozu.**

Uda aurretik atera genuen; gure kantuek eta diskoek sartzeko denbora bat behar dutela konturatu naiz. Ez zaionari gustatzen ez zaio gustatzen, baina gustatzen zaionari hilabete batzuetara lehertzen zaio barruan. Orduan hasten da jendea kantatzen, gozatzen... Orain ari naiz une hori bizitzen.

**Hasieratik izan dute zure kantuetan hitzek garrantzia; oraingoan, baina, nabarmen.**

Esfortzu handiagoa dago letretan, bai. Beti saiatu naiz diskotik diskora beste buelta bat ematen gauzei, eta, oraingoan, bereziki saiatu naiz gauza batzuei uko egiten eta beste berri batzuk bilatzen. Alde horretatik, kontzientea izan da, bai.

**Zure kontuei buruz idazten duzula esaten duzu. Zer gura zenuen berrieekin adierazi?**

Neurri baten, badute autobiografiatik zerbait, ni nire ingurua naiz eta. Egoera batzuk erreflexiboak dira, beste batzuk alegorikoak, metaforikoak beste batzuk... Esango nuke, baina, hitzetan egia dela ematen duena batzuetan ez dela horrela, eta alderantziz, egiazkoa ez dela ematen duena benetakoa dela. Duda barik, esperientziatik idazten du batek, eta zure esperientzia da, bizi duzuna, ikusten duzuna...



**Egunkarietako hiztegia arlo sentimentalera ekarri duzu. Zergatik aukeraketa hori?**

Gazteleraz badago tradizioa hitzen polisemiarekin jolasteko, Julio Kortazarrek, adibidez. Konturatu nintzen jolas horren bila nenbilena. Zergatik? Ez dakit. Eta zertarako? Ba, beste kanpo semantiko bat bilatzeko nire hitzei eta egunkarietako horiei ere bai. Jolasa izan da. **Metaforak derrigorrez aipatu behar ditugu: adierazteko zure modu sujerentea.**

Bueno, batzuetan metaforekin gauzak hobeto ulertzen dira normal esanda baino.

**Zein iturritatik edaten du gaur egun Anarik?**

Oso zaila da norberak hori erantzutea, sarritan kontrolatzen ez duzun zerbaitek duelako zuk egiten duzun horretan eragina. Literaturatik asko edaten dut;



Anari abeslaria  
Arrasateko  
gaztetxean.

### **lan handia eskatzen du. Merez du esfortzuak?**

Bai, merezi du. Autoekoizpenaz harago, zer edo zer indartsua egiten saiatu ginen; nork bere aldetik autoekoizten badu, indarra zatitu, sakabanatu eta galdu egiten da, eta, horregatik, gu hasieratik saiatu ginen autoekoizpen bilgune bat izaten. Musika merkatuan ados ez geunden kontuetan gure erara moldatzen saiatu gara; horretarako egin genuen BIDEhUTS, eta horretan irauten dugu.

### **Durangoko Azokaren egunetan gaude. Zer da zuretako?**

Beharrezko gauza bat da niretako Azoka, baina garai berrietara moldatu beharra duela uste dut. Eszena asko aldatu da, ekoizteko moduak ere asko aldatu dira eta Azokaren eskema pixka bat zaharkitua geratu delakoan nago. Horren kontrapuntua Ahotseneak eman diola uste dut. Modu baten esanda, garai berrietara moldatu du Durangoko Azoka, eta, neurri handi baten, demokratizatu ere egin duela esango nuke. Hori da Durangoko Azoka antolakuntzaren edo kontzeptuaren aldetik. Bestalde, oso edarra da, zuk ikustea nork erosten dizun diskoa, harekin berba egitea... Askok gustatzen zait Durango. ■

azkenaldian, Rafael Chirbes asko irakurri dut; baina, egia esan, ez dakit hortik zenbat dagoen nire hitzetan. Uste dut, gainera, influentziek izan behar dutela zu zaren %10 eta %90 zu izan behar zarela.

### **Baduzu idazle minen bat?**

Minik... ez dakit. Saiatzen naiz ateratzen diren lan eta idazle berriak irakurtzen eta erreferentziaren bat ematen didatenean hori irakurtzen. Idazten ari naizenean, baina, ez dut irakurtzen; beraz, apenas irakurri dut iaiztik.

### **Eta zelakoa da hitzei jarri diozuen bilgarria, musika?**

Nire gitarraren eta pianoren gainean egindako diskoa dela esango nuke, hein handi baten. Konponketa asko ere badituela gaineratuko nuke; kantu batzuetan bost gitarra daude. Ez da aurrekoak besteko rockeroa, lasaiagoa da akaso. Saiatu naiz beste lagun

batzuekin jotzen, eta beraiek eman diote beste ukitu hori.

### **1997an atera zenuen bakarkako lehen lana. Ze puntutan dago Anari?**

Personalki, musika arloan esan nahi dut, diskoko esaldi bat erabiliz, ihes egiten diozun eta jarraitzen zaituen horren artean nagoela. Gero eta kontzienteagoa naiz horretaz: zenbat eta disko gehiago atera, orduan eta zailagoa dela buelta bat gehiago ematea.

### **Ezin BIDEhUTS aipatu barik utzi. Autoedizioak kostu eta**

## **“ESFORTZU HANDIAGO DAGO ORAINGOAN KANTUEN HITZETAN”**

## **“DURANGOKO AZOKAK GARAI BERRIETARA MOLDATU BEHAR LUKE”**



Saioa Ojanguren Ojanguren  
Arrasateko liburutegikoa



## EL BAR DE LAS GRANDES ESPERANZAS

Egilea: J. R. Moehringer

Argitaratzailea: Duomo Nefelibata

2015 / 460 orrialde

Generoa: Nobela

# Gizonak eta tabernak

Gogorapen serioak ere badira, urrunaldiak eta galerak

**M**oehringer-ek erabiltzen duen idazkera simple eta dotoreak entretenimendu eta berrikuntzaz beteriko testua erakusten digu. New York Estatuko herrixka bateko pub baten bizi diren hainbat pertsona kutun ezagutuko ditugu, eta, horien bitartez, joan den mende bukaerako Ipar Amerikako bizimodua. Historiako hainbat gertakariren ispilu ere bada liburua. Mundu mailako gertaerak. Fondo sentimentala ere badu: aitaren faltan, gizonezkoaren jokabide eredu bila pasako ditu urte asko protagonistak. Emaitzarik gabeko bilaketa izango da.

### Dickens izeneko tabernan

hasten da liburua, idazle horren lanari aipamen eginez. Gerora, Publicans deituko da, 1972ko udan. Hain justu, gure protagonistak 7 urte dituenan.

46 kapitulu ditu, bi partetan banatuta. Protagonistaren hazkuntza ikusiko dugu, ume izatetik heldu arduratsu izatera. Hainbat fase pasako ditu; gaztetasun erromantiko eta dickensianoa, hainbat urte galbidean, ardo eta arrosadun

beste urte batzuk... 36 urte bete arte. Historiaren ibilbidea gorenera iristen da une horretan. Eta orduan jarriko ditu hankak lurrean protagonistak. 2001eko irailak balioko dio errealtatearen kontzientzia hartzeko.

### Pasadizo eta anekdota

dibertigarrirei maitasuna darie. Baina gogorapen serioagoak ere badira, urrunaldiak eta galerak; horiekin bukatzen da liburua. Nobela honek aurretik idatzitako liburuaren *Open*-gogorapena dakar. *Jugadores de Primera División* kapituluan bizitzaren filosofia ulertzeko kirolak betetzen duen paperaz ematen du iritzia. Horrez gain, Frank Sinatrari eta musika amerikarraren urrezko urteei omenaldi samurra egiten die.

Moehringer 1964an jaio zen, New Yorken. Yale-go unibertsitatean lizentziatu zen eta kazetari moduan *The New York Times*-en hasi zen. *Los Angeles Times*-en ere egin du lan. Pulitzer saria jasotakoa da. Andre Agassirekin elkarlanean, tenislariaren autobiografia idatzi zuen *Open*- eta bere azken liburua inoizko lapurrik handienaren bizitzaren ingurukoa, Sutton. ■





Idoia Murgiondo Goiena Klubeko bazkidea

## “Goienako txartela Bergarako komertzioetan erabili izan dut”

TESTUA: AMAIA TXINTXURRETA ARGAZKIAK: MAITE TXINTXURRETA

Idoia Murgiondo bergararra hasieratik da Goiena Klubeko bazkide.

### Zergatik erabaki zenuen klubeko bazkide egitea?

Aspalditik naiz bazkide, Goienak euskaraz lan egiten duelako eta inguruko albisteak eta

informazioa ematen dituelako. Nire neu naiz bazkidea, baina etxeko laurok kontsumitzen ditugu Goienaren produktuak. **Gustatzen zaizue PUNTUA astekaria?**

Bai. Etxean guztiok irakurtzen dugu eta nork bere gustuko eta intereseko atalak irakurtzen ditu.

Gainera, Azkoitian bizi den ahizpari noizean behin bidaltzen dizkiot azken orrietan etortzen diren umeekin egiteko errezeta edo jolasen fotokopiak; beraz, publizitate pixka bat ere egiten dut, tarteka.

### Eta baduzu ohiturarik Goiena Klubeko txartela erabiltzeko?

Bergarako komertzioetan erabili izan dut, bai. Esaterako, Lonbide oinetako dendan. Ondo dago, deskontua egiten duelako.

### Zozketetan parte hartzeko ohiturarik badaukazu?

Egia esan, ez. Beti pentsatzen dut hurrengoan parte hartu behar dudala, baina denbora faltagatik-edo ez dut parte hartu. ■



#### GOIENA KLUBEKO ABANTAILA GEHIAGO:

**Deskontuak komertzioetan:** Debagoieneko hainbat komertzioetan deskontuak.

**Puntuak:** Egubakoitzetan etxean jasoko duzu.

**Deskontuak:** Goienan jartzen dituzun iragarki sailkatu eta eskela guztietan.

Urteko kuota: **55 €**. Azaroan bazkideguz gero: **10 €**.

943 25 05 05 | [kluba@goiena.eus](mailto:kluba@goiena.eus) | [blogak.goiena.eus/goienakluba](http://blogak.goiena.eus/goienakluba)

**goienakluba**  
Euskaraz irabazle, denok irabazle!

# Irizar jauregia

Bergarrarendako erreferentzia den eraikinak 1964an jaso zuen monumentu-izendapena

TESTUA ETA ARGAZKIAK: MIREIA BIKUÑA

**U**rrutia-Espilla da jauregiaren jatorrizko izena. XVII. mendearen erdialdean Ignacio Urrutia eta Ana Espilla senar-emazteen aginduz egindakoa. Baina, XVIII. mendea ezker, bergararrek Irizar jauregia izenarekin ezagutzen dute. “Egun jauregia dagoen lekuan zegoen eraikina Valdespina markesarena zen eta truke baten bidez Irizar familiarren eskuetara heldu zen. Irizarrek Elgetan zuten baserria eman zioten markesari jauregiaren orde. Markesak onurak emango zizkion eraikina behar zuen eta Urrutia-Espilla jauregian ez zuen halakorik lortzen”, esan du Iraganeko Oinatzak Elkarteko historialari Arantza Otaduik.

## Urrutia-Espilla senar-emazteek berri zuten eraikina goitik behera

**ABERASTUTA** Ignacio Urrutia eta Ana Espilla 1659an ezkondu ziren. Hala, bat egin zuten aspaldiko leinuaren izen ospetsuak eta diru-aberastasunak ematen duen ospeak. “Ignacio Urrutiak ez zuen maiorazkorik izan, anaientan laugarrena izan zelako. Hori horrela, Ameriketara joan zen diru bila eta negozioak egin zituen Perun eta Sevillan. Armadan ikasketak eginda joan zen eta haiei esker negozio handiak egin zituen Potosiko meatzeetan. Oso aberastuta itzuli zen Bergarara.

Lau urteren ostean Espilla familiarren maiorazkoa jasoko zuen alabarekin ezkondu zen. 20 urte gazteagoa zen neska”, azpimarratu du Otaduik.

**LORATEGIA** Segituan hasi ziren etxean berrikuntza lanak egiten. Aipagarriena lorategia izan zen. Baratzearen orde, XVI. mendeko Italiako modan oinarritutako lorategia ipini zuten. “Etxean zituen baratzeari zati bat kendu eta lorategia ipini zuten. Forma geometrikoak ditu. Urrutia kapitainak Sevillan, Liman eta beste hiriburu batzuetan ikusitako lorategia kopia gura izan zuen. XVII. mendeko lehen lorategia Bergaran ipini zuen. Europako kultura-guneetan erabiltzen ziren dekorazio geometrikoaren errepertorioa erabili zuen”, azaldu du Otaduik.

Gainera, lorategia jauregiaren fatxada nagusiaren aurrean kokatu zuen. “Dotoretasunaren aldeko apustua egin zuen. Etxe-ko sarrera nagusian lorategia baratzea baino dotoreago gertzen zen. Urrutia kapitainak biak eduki zituen”, dio.

Irizar jauregiko lorategiak monumentu-izendapena lortu zuen 2009an. Aurretik, 1964an, izendapen bera jaso zuen eraikinak.



**EREDU** Jauregiaren eraberritzearekin etxean ipinitako hainbat elementu bogan ipini ziren. Besteak beste, jauregiaren fatxada nagusian dauden balkoiak. “Balkoietako balaustreak burdina forjatuzko lan bikainak dira eta eredu izan ziren beste hainbat lekutan. Adibidez, egun liburutegia dagoen Errotalde jauregian balkoi berberak ipini zituzten”, esan du Otaduik. Era berean, eredu izan zen teilatuaren azpian



↳ **Bergarako besarkada**-ren protagonista Maroto eta Espartero eta ertzean dagoen armarrria.

↳ Irizar jauregiaren bi alde eta lorategia lrala kaletik ikusita eta fatxada nagusiko balkoietako bat.



barruan dagoen eskaileran. Ilustrazio garaikoa dela argi eta garbi ikusten da”, dio historia-lariak.

**ARMARRIA** Barrenkaleko eta lorategi aldeetarako fatxadetako ertzean armarrria dago. Bi alde-tara ematen duena. “Bergarako etxe askotan daude armarrriak ertzean. Bi kaletara begira. Helburu bakar batekin: euren ospea eta balioa herritarrei erakustea. Irizarren parean dagoen Arrese etxean ere armarrria ertzean dago”, esan du Otadiuk.

Egungo sarrerak Barrenkale aldera ematen du: burdinazko atea du, errekarritz egindako zorua eta arku karpnel handia.

**BERGARAKO ITUNA** Sarreran leku berezia dute Maroto eta Espartero jeneralek. Bergarako hitzarmenari eta besarkadari erreferentzia zuzena egiten diote Irizar jauregian. “Lehenengo Karlis-taldiari bukaera eman zion Bergarako Ituna Irizar jauregian sinatu zen. Euskal Herriaren historiari lotuta egongo da betiko. XIX. mendean bake prozesurako eredu izan zen Bergara. Maroto karlistak eta Espartero liberalak Oñatin idatzitako bake ituna Bergaran sinatu zuten. Ostean, marrazkien bidez ezagun egin zen besarkada irudikatu zuten. Hori, baina, Fraiskozuri plazan egin zuten euren armadez inguratuta. Une gogoangarria izan zen”. ❏

dagoen egurrezko kasetoidura. Adibidez, Bergarako eta Arrasateko beste hainbat eraikinetan kopiatu zuten. “Irizar jauregia oso adibide ona da Indianoek Euskal Herrira zer-nolako eraikinak ekarri zituzten ezagutzeko. Bestalde, irizartarrek egindako berrikuntza gehienak ilustrazio garaikoak dira eta eragina oso garbia da hainbat elementutan. Adibidez, etxe





# Irudietara eramán

KOMUNIKAZIOA



Edorta Arana

@EdortaArana

**B**at. Mugikorraren kamera prestatu, lagunén buruak hurbildu, besoa luzatu eta nahierako aurpegia jarri. Erabilién artean egoten dira irribarretsuarena, *sexy*-arena, *emoiztazu-muxutxu*-bat edo rap kantariarena. Bat hartu, klik egin eta listo.

**Bi.** Laster hasiko den hauteskunde kanpaina berrián mitin aurrefabrikatuak ikusiko ditugu berriro ere. Hautagaiak; plato baten itxurako dekoratu eramangarria; estra lanetan dauden entzuleak adin, sexu eta arraza askotarikoak; atrila, txalo aurrez grabatuak, argiak eta komunikazio-arduraduna ekitaldiaren gidoiarekin.

**Eta hiru.** Gerra hotsak. Gertakari batzuk hartu eta kasu-ondorio ardatzean kokatu. Kronologia bat antolatu. *Gu* eta *eurak* mugatu. Etsaia karakterizatu. Erabaki trama eta

azpi-tramak zabaltzeko zein komunikabide erabiliko diren planifikatu. Iritzi publikoa sortzeko elementu guztiak prest. Has dadila *performance*-a.

**Badakit** oso maila desberdinekoak direla hiru kasuak. Lehenean, *guay* izatea, *onlinetasuna* eta itxurakeria nagusitzen dira. Bigarreanean, sistema politikoaren oinarrietan dagoen hautagai eta biharko agintari ahaltsuaren diseinuaren garrantzia nabaritzen da. Ustelduta dagoen sistema politikoaren zaharberritzea irudikatu gura du. Hautes-zerrendetako izenburuak aldatuta, freskotasun itxura eman. Gauzak bere horretan mantén daitezén, aldaketa kosmetiko sakonak egin.

**Azken adibidea,** beste kontu bat da eta bereziki mingarria. Izan ere, gerra diskurtsoa zabaltzen ari denean, heroi

plantan dabilén aktore nagusia nor den esan eta justifikatzen dutenean zein beharrezkoa daukagun bere parte-hartzea, ezkutatu egiten zaizkigu alboko kaltetuak. Zibilizazioen arteko talka entzuten den bakoitzean, lehendik gaizki zeudenak, txiroak eta sufritzen zutenak ugaritu egiten dira. Youtubén ikus daitezkeen bombardaketa horien atzetik hildakoak eta zaurituak daude zientoka.

**Oraingo honetan,** gainera, aurkariak beste azal-kolore bat dauka. Gurtzen dituen jainkoak beste batzuk dira. Bere hizkuntza ezezaguna zaigu. Partekatzen dugun historia eta istorioetan ez da agertzen. Perfekto. Irudiaren esanetara gaude gaur egun. Arinkeriak nagusi dira. Gertakarién kompleksutasuna baino azalpen sinpleak nahiago izaten ditugu. Asti barik gabiltza aldatzen ari den eszenatokia ulertzeko.

Tira, amaitzera noa, fondo polit bat aukeratuko dut; esaterako, Parisko Eiffel dorrea, aurpegirik kitzikagarriena jarri eta klik egin. Lagunei bidaliko diet argazkia gauzak zein ondo dauden jakin dezaten. –*Moska* laguna gogoan–. ❏



PMK



**Jon Berezibar**  
jberezibar@goiena.eus



### DOJO

Segurtasun hesi birtuala | Dojo-Labs | 99 dolar

Etxean Internetera konektatutako gailu guztiak babesteko sistema aurkeztu du Dojo-Labs-ek: ordenagailuak, mugikorak, alarma, etxetresnak... Kanpotik edozein saiakeraz ohartarazten du jabea eta pribatutasuna gehitzen die konexioei. Gailuentzako antibirus modukoa litzateke, ikusita geroago eta sare zabalagoa dela "gauzen Internet", kanpotik etor litezkeen erasoen zain.

### PLANTLINK

Hezetasun monitorea | PlantLik | 35 dolar

Lurretan iltzatu eta Plantlinkek zoruaren hezetasuna monitorizatzen du datu basean duen 50.000 landareri buruzko informazioari esker. Landarea ur faltan denean, SMS, posta elektronikoa edo jakinarazpen bidez jakinarazten zaio erabiltzaileari. Bateriak urtebeteko iraupena duela diote fabrikatzaileek. Bi pieza ditu gailuak, lurretara iltzatu beharrekoa, batetik, eta monitorizatzeko gunea, bestetik (79 dolar).



### NAOS QG

Sagua-pultsometroa | Mionix | 50 euro

Pultsua neurtu eta azalaren erantzun galbanikoa (elektrizitatea) antzemateko gai da sagua. Ordenagailuak saguaren erabileraren datuak jaso eta interpreta ditzake. Bi aspektu ditu interesgarriak planteamenduak: lehena, osasunarekin lotua, erabiltzailearen egoeraren berri jaso eta ohartaraz baitezake sisteman. Bestea bideo-jolasekin lotutakoa litzateke, jokalaria erantzuna neur baitezake.



# ‘Nor da?’

**Egilea:** Txatxilipurdi | [www.txatxilipurdi.com](http://www.txatxilipurdi.com) | ‘Kalekanto!’ jolas bildumatik

**Argazkietan:** Otxandioko ludotekako haurrekin eta hezitzaileekin egin genuen jolasa ludotekan. Ongi pasatu genuen mahai inguruan.



**HELBURUA:**

Konfiantza eta afektuzko kontaktu fisikoa lantzea.

**1** Lagun bati begiak itxiko dizkiogu, zapi batekin, ahal bada (1. irudia), eta bi buelta emanaraziko diogu.

**2** Mahaira eramango dugu (2. irudia) eta bertan begiak itxita dituela aulki baten aurrean utziko dugu.

**3** Eskuekin ukituz aulkian dagoen laguna nor den asmatu behar du (4. irudia). Eserita dagoen lagunari janzkera, ilea ... alda diezaiokegu! (3. irudia)

**4** Bai, asmatu duzu! (5. irudia)





**Miren Vela Mosqueira**

Soraluze. 3,780 kilo. Azaroaren 29a. Gurasoak: Fanny eta Iñaki. Argazkian, Miren, aitaren besoetan.



**Sara Pereira Alves**

Oñati. Azaroaren 28a. Gurasoak: Ana eta Manuel. Argazkian, Sara txikia, gurasoekin.



**Beñat Arenaza Murillo**

Arrasate. 3,340 kilo. Azaroaren 25a. Gurasoak: Mari eta Iñaki. Argazkian, Beñat txikia, sehaskan lo.



**Zura Etxebarria Garai**

Bergara. 3,900 kilo. Azaroaren 25a. Gurasoak: Maite eta Alain. Argazkian, Zura, lasai-lasai, sehaskan.



**Ametz Salgado Iglesias**

Antzuola. 3,200 kilo. Azaroaren 23a. Gurasoak: Enara eta Ritxar. Argazkian, Ametz, ahizpa Olaiarekin.



**Malen Azkune Zubia**

Eskoriatza. 2,710 kilo. Azaroaren 21a. Gurasoak: Eneritz eta Joseba. Argazkian, Malen, gurasoekin.

Guraso berriei EROSKI hipermerkatuaren partetik,

**zorionak!**

Eroskik zuen lehen beharretarako, **OPARIA\*** egingo dizue Goiena Klubeko bazkide zaretenoi.



MUSAKOLA 11 ARRASATE  
TEL.: 943 71 10 30



\* DEBAGOIENEKO OSPITALEAN JAIOTZEN DIRENENTZAT

# Arrasateko Udalarekin ere euskaraz



ARRASATEKO UDALA